




## HERRIAREN HEREN BAT ZAPALDU NAHI

Habea, legez kanpo, baina botoa emango du • EH, %34 1999an  
• Julian Eizmendi: "Guri botoek emango digute zilegitasuna" (28-45)





Oinkari



%10 deskontua udaberri eta udarako artikulu guztieta

Orain Erdi kale 18an



SUKALDEKO ALTZARIAK  
BAINUGELAK  
HORMAN SARTUTAKO ARMAIRUAK

PEREZ ARREGI,9 Tfnoa. eta Faxa: 943 15 05 10

Ez egon geldiri



mugikiriolak



Enparan kalea 8, Tel. 943 - 151004

Matxindarrak erremontean. 'Matxin II.a'-k utzi egin du (14-15)

Joseba Iriondo, Bagdadeko lekuko (20-21)



Klik! Korrika 13 Azpeitian izan zenean (48-50)



Hi heu! Saioa Etxaniz modelo lanetan (54)

uztarria

'Egunkaria' itxi eta bi hilabetera, horretaz eta komunikabideez aritu dira hizketan Amagoia Gurrutxaga, Patxi Azpillaga eta Xabier Euzkitze

# EGUNKARIEN MUNDU EZKUTUA ARAKATZEN

Iban Arregi / Zarautz



**K**ostatutakoa izan da, baina azkenean mahai baten bueltan bildu ahal izan ditu Uztarriak hiru lagunak, Zarautzen, ia-ia beste modurik ez zegoelako. "Ez dela giro", dio Amagoia Gurrutxaga *Egunkaria*-ko kazetariak. Udalbiltzaren kontrako operazioaren berri izan berri dute, eta kafesne banari zurrupada emanez hasi dira euskal prentsez hizketan, patxadan, batere presarik gabe.

● **Bi hilabete badira *Egunkaria* itxi zutela. Zer balorazio egiten duzue bi hilabeteoz? Erasoaren tamaina, erantzunaren tamaina...**

**Xabier Euzkitze:** Erasoaren tamaina ikaragarria izan zen. Beharbada gauzak ondoren aztertzen hasita erraza da esatea "ikusten zen bazetorrela...", baina nik uste dut inork ez zuela pentsatu ere egingo horretara ailegatuko zenik. Eta hori aurretik bazeudela aurrekariak. Gero, erasoaren tamaina hain handia izanda, erantzuna ere halakoxea eskatzen zuen. Pentsatzen dut erantzuna momentuak eskatzen zuenaren araberakoa izan dela.

**Patxi Azpillaga:** Esaten da ikusten zela ba-

zatorrela, baina nik ez nuen ikusten. Gertatu zenean benetan harrিতuta eta kezkatuta geratu nintzen. Dena biltzearen politika horrekin, Batasuna ETArekin lotzen duen politika horrekin, instituzioen ingurutik aldentuta dabilen guztia da kontrakoa; eta dena ETArekin biltzen duen politika horrekin, *Egunkaria* bera ixteraino ailegatu den politika horrekin instituzionala ez den edozeren kontra jo dezakete.

**Euzkitze:** Dena dela, nik uste instituzional hori ere bereiztu egin behar dela. Beraien kontroletik aparte dauden instituzioak ere ez dira haientzat oso instituzional. Ni berez komunikabide instituzional bateko langilea naiz. Hala eta guztiz ere, ez dut uste haiek bereizketa hori oso garbi egiten dutenik. Esate baterako, Gil Roblesek egin zuen bere txosten famatu hartan *Sorginen Laratza* zetorren gurutze handi batekin markatuta, eta berak esaten zuen saio hartan terrorismoaren apologia egiten zela.

**Amagoia Gurrutxaga:** Nik uste, hain zuzen, *Egunkaria*-ren aurkako operazioaren helburuetako bat hori zela: *aviso a navegantes*. Ez dago zentsura okerragorik norberak beldurratetik bere buruari ezartzen diona baino. Eta hori da niretzat gakoetako bat. Eraso ikaragarria izan dela diozuenen, erabat ados, baina ikaragarri hitzaren bi zentzuetan: hau da, handia, eta ikara ere sortzen duena. Hala, erantzuna ere bi mailatan sumatu da: handia izan da, baina ikara ere sortu du *Egunkaria*-renak.

● ***Egunkaria*-ren zabaltasuna, instituzioen kontrola... eztabaidagai bihurtu dira azken hilabeteotan. Zer egiteko bete behar dute instituzioek eta zehazki Eusko Jaurlaritzak prozesu honetan?**



Azpillaga, Gurrutxaga eta Euzkitze, mahainguruan.



“Instituzioen erantzukizuna da horrelakorik gertatu ez dadin neurri batzuk ezartzea. Instituzioek beste jarrera bat hartu behar dute”

### Patxi Azpillaga

(EHUko irakaslea)

“Ikara hor dago, eta ezin da ezer bermatu. Bihar egunkari berria marxan jarrita, zeinek esango du hilabete barru ez dutela itxiko?”

### Xabier Euzkitze

(ETBko kazetaria)

“Hemen guk besteen informazioa kontsumitzen dugu, eta horrek baldintzatu egiten du iritzi publikoa”

### Amagoia Gurrutxaga

(Egunkaria-ko kazetaria)

» **Gurrutxaga:** Hasteko, argi eta garbi esan behar da gu ez garela egunkari publiko bat, baina zerbitzu sozial edota publiko bat ematen dugula. Hortik abiatuta, guk ere nahiko genuke diru laguntza beharrik ez izatea, baina tamalez beharrezkoa da, eta instituzioek lagundu egin behar dute halako egunkari bat. Gero, helburua autosufizientzia da, eta bide horretatik zihoan *Euskaldunon Egunkaria*. Hau da, ez da kasualitatea *Egunkaria* orain itxi izana, urterik politena ixtera ziholak: ekonomikoki begiratuta batetik, kultur parkea inauguratuta, proiektu berriak marxan...

**Euzkitze:** Niretzat, oso kontuz aztertu beharreko kontua da diruz laguntzen duten erakundeentzako funtzioarena, zenbaterainoko kontrola eta zer eratakioa izan behar duten... Eztabaida hori mila aldiz sortu izan da gure artean; esaterako, gaztetxeen kasuan, edo beste mila arlotan. Eta hori bai, gero eta autosufizienteagoa, orduan eta hobeto.

**Azpillaga:** Ados, baina eztabaida hau ezin da airearen gainean egin. Kontuan hartu behar da hamahiru urteko ibilbidea egin duela *Egunkaria*-k, eta ezin da eztabaida bat abiatu hamahiru urte horiek existitu ez balira bezala. *Egunkaria* hor zegoen, eta egunkari hori berreskuratu behar dugu. Eta gero hori hobetu egin behar dugula, zabaldu egin behar dugula? Ados, baina *Egunkaria*-k bete-

tzen zituen gaur egun euskarazko egunkari batek bete behar dituen funtzioak.

**Euzkitze:** Nik uste hor badela oreka bat. Batetik, ezer egin ez balitz bezala hutsetik abiatzea planteatzen duenak erabat gutxietsi egiten du orain arte egin den lana, meritu handiko lana dena, gainera. Bestetik, oinarri hori aitortuta, eta horren balioa inoiz zalantzan jarri gabe, hortik aurrera egin beharko litzateke eztabaida. Eztabaidari ateak ixtea inoiz ez da ona, baina horrek ez du esan nahi hutsetik hasi behar denik.

• **Langileek iragarri dute jada egunkari berria laster izango dela kalean, eta badirudi hala izango dela. Baina nahikoa al da horrekin? Hala beste zerbait behar da halakorik berriro ez gertatzeko? Nola berma daiteke hori?**

**Gurrutxaga:** Hor badago askotan aipatu izan den euskal komunikazio eremua, baina hori ez da defentsa neurri bat, hori sortu eta eraiki behar den zerbait da.

**Euzkitze:** Ikara hori hor dago, eta ezin da ezer bermatu. Bihar egunkari berria marxan jarrita, zeinek esan dezake hilabete barru ez dutela berriro itxiko?

• **Baina ezin al da ezer egin komunikabideen arloan, kazetarien arloan, euskal herritar moduan, instituzioetan..., halakoak egitea hain erraz ez izateko Espainiak?**

**Azpillaga:** Instituzioen erantzukizuna da horrelakorik gerta ez dadin neurri batzuk ezartzea. *Egin* itxi zuten eta *Gara* zabaldu zuten; orain *Egunkaria* itxi dute eta beste bat zabalduko dute. Baina horrela ibili behar al dugu beti? Hori ez da modua. Eta hori ez denez modua, instituzioek beste jarrera bat hartu behar dute, babesleagoa, Espainiako Estatuari berari esanez eta finkatuz mugak non dauden. Jaurlaritzak-eta argi erakutsi behar dute gauza batzuk ezin direla egin, instituzioek beraiek eta gizarteak ez dituztela gauza horiek onartzen. Instituzio mailan kokatu behar da erantzuna.

**Euzkitze:** Baina apustuak ez dira maila legalean bukatu, eta batzar nagusietan eta udaletan mila aldiz galdetu diote EAJri eta EAri ea *Egunero* laguntzen segitu behar duten... Beraz, alde horretatik instituzioek eman duten erantzuna ere nahikoa tinkoa eta ona izan dela iruditzen zait, publizitatea sartzeari ez ziotelako utzi *Egunero*-n.

**Azpillaga:** Baina kontua ez da bakarrik publizitateari eta halakoei eustea. Nire ustez, are eta adierazpen nabarmenagoa egin behar zuten instituzioek, esanez honaino ailegatu gara, hemendik aurrera instituzio honek ez du horrelakorik gehiago onartuko.

• **Euskal komunikazio eremua aipatu du lehen Amagoiak. Zenbaitek komentatu izan du egoera honetan inoiz baino beharrezkoagoa dela gure komunikabide propioak sortzea, euskal prentsa bultzatzea, elkarren arteko**




**ZARAUTZEN.** Azpeitian jaiok dira Xabier Euzkitze eta Patxi Azpillaga, eta Matximentan Amagoia Gurrutxaga (erdian). Hirurak, baina, Azpeititik kanpo bizi dira: Zarautzen Euzkitze eta Gurrutxaga, eta Bilbon Azpillaga. Hala, Zarauzko Musika Plazan bildu genituen hirurak. Komunikabideetan eskarmentu handikoak dira Euzkitze (ETBn) eta Gurrutxaga (*Egunkaria*-n), eta aditua Azpillaga (EHUko irakaslea da, eta hainbat lan egin du komunikabideez). Mahainguru mamitsua izan zen.

**harremanak sendotzea, sarea osatzea. Egin beharreko lan handia al dago hor oraindik?**

**Azpillaga:** Euskal komunikazio eremuak alderdi asko dauzka: hartzaile partetik, eskaintza aldetik, instituzionalizazio eta legedi aldetik, merkatu aldetik... begiratu daiteke. Eta hori dena egituratzea ez da lan erraza, urte askotako lana beharko da. Baina hemen gero eta gehiago ikusten ari dena da badagoela Euskal Herrian komunikabideen kontsumo berezko bat, ari dela egituratzen eskaintza propio bat, eta hortik, modu batean edo bestean eskaintzen den komunikazioa propioa dela. Eta horrek islatzen duena da badela Euskal Herrian iritzi publiko desberdina, Espainiakoaren desberdina dena. Dena dela, horrek badiu desoreka garrantzitsuak, batik bat bi: prentsan, batetik, Correo Taldea nagusi delako gurean; eta euskararen, bestetik, euskararen oso presentzia txikia duelako komunikabide idatzietan. Hori kontuan hartuta, bestelako egiturak sortu beharko liratekeela, komunikabide desberdinen arteko sinergiak bilatu beharko liratekeela, horrela hobeto erantzuteko dauden desorekei? Nik uste zentzuzkoa dela hori.

**Gurrutxaga:** Gaur egungo gure gizartearen informazioaren gizarte dela esaten dugu, eta





IBAN ARREGI

kontua da hemen jasotzen dugun informazio gehientsuena ez dagoela pentsatua euskaldunen komunitatetik euskaldunen komunitateari erantzuteko. Kontsumitzen dugun gehiena ez, behintzat. Eta horrek baldintzatu egiten du iritzi publikoa. Nik euskal komunikazio eremua honela ulertzen dut: euskaldunek elkarren berri izateko informazio sare bat, espainolek, frantsesek eta portugesez duten moduan, herri normalizatuak duten moduan. Eta hemen guk besteen informazioa kontsumitzen dugu.

● **Beraz, galdera bat: zergatik erosten da hainbeste *El Diario Vasco* Azpeitia bezalako herri euskaldun eta abertzale batean?**

**Euzkitze:** Jon Sarasuak Azpeitiko Kiroldegian bota zuen duela urte mordoska bat: "Zuen artean zer gertatzen den mila aldiz dut ikusi, *Egunkaria* txalotu eta *Diario Vasco* erosi". Eta hala da hori. Nik neuk ere *Egunkaria*-rekin bakarrik ez nuen nahikoa, lan kontuegatik. Nik lan kontuegatik erosten dut *Diario*. Beste jendeak, zergatik? Ez dakit.

**Azpillaga:** Hor ohitura kontua baino gehiago dago. Nik ez dakit, baina Espainiako trantsizio garaitik hona Correo Taldeak asko handitu du bere difusioa, eta prentsa aberzaleak behera egin du nabarmen.

● **Horrek ba al dauka eraginik euskal komunitatean? Zenbaiten ustez, ez.**

**Euzkitze:** Hauteskunde emaitzetan ez da nabaritzen, behintzat.

**Azpillaga:** Zer esango dizut ba... Hor bada go tesia bat esaten duena kontsumo mediaticoak ez duela eraginik norberaren aukera politikoan. Baina prozesu mediaticoak eta kulturalak oso epe luzekoak izaten dira.

● **Eta zertan eragiten du gaur egun?**

**Gurrutxaga:** Erreferentzialtasunean, ikaragarri. Esaterako, hemen gehien kontsumitzen diren komunikabideetan euskarazko literaturak duen presentzia oso txikia da, oso txikia. Azpeitiko ez dakit zenbat jendeak daken, esate baterako, kristoren idazlea badugula Azpeitian: Jose Luis Otamendi, hain justu. Azpeitiar gehienek ez zuten sekula haren ezer irakurriko, eta zer liburu idatzi dituen ere ez dute jakingo. Eta hori gertatzen da enteratu ere ez direlako egiten, *El Diario Vasco*-n azaldu ere egiten ez delako. Eza gutzen ez duzuna ezin duzu maite.

**Azpillaga:** Hori da. Gaiak-eta zeinek ezartzen ditu? Jendeak ahoz aho erabiltzen dituen gaiak zeinek markatzen ditu? Komunikabideek. Eta hemen *El Diario Vasco*-k markatzen ditu, berak ezartzen ditu erreferen-

tziak. Kontuan hartu behar da, bestalde, prentsa oso merkatu berezia dela, ez dela irratia eta telebista bezalako. Egunkari asko dauden tokietan egunkari batek edo batzuek bereganatzen dute merkatuaren parte handiena, bada joera hori. Hemen, gainera, enpresa bat dago sekulako baliabideekin [Correo Taldea], eta horrek aukera ematen dio eskaintza indartsua egiteko.

● **Eta horri nola egin aurre? Nola eman dakioke buelta merkatu egoera horri?**

**Azpillaga:** Horixe da galdera. Nola egin aurre? Pareko eskaintza batekin? Ez duzu halako baliabide ekonomikorik, ez duzu halako sarerik informazio bat jasotzeko, eta beti bigarren maila batean zaude. Eta berriro bueltatzen gara lehengo gaira. Europako hainbat lurraldetan babes sistemak daude prentsa-erentzat. Jakinda hori gertatzen dela, jakinda badela monopoliorako joera bat, lurralde gehienetan prentsa aniztasuna sustatzeko eta bultzatzeko babes neurriak daude, diru laguntzak. Europako ia lurralde gehienetan ematen zaio babes publikoa prentsari, aniztasun minimo bat babesteko.

Mahainguru oso-oso [www.uztarria.com](http://www.uztarria.com) helbidean aurki daiteke



'EGUNKARIA'  
BATZORDEA  
AZPEITIA

1990




“Gu EHEn ibiltzen ginen orduan, eta handik etorri zen herrietan taldeak sortzeko mezua”

Aitor Larrañaga



“Jende gehienak jarrera ona erakutsi zuen; ‘Argia’-tik aurrean bat egin zen eta ez zen perretxiko soil bat”

Jose Luis Otamendi



“Komertzioetara eta tabernatara joaten ginen ‘Egunkaria’-ren lehen alerako publizitatea eskaintzera”

Mikel Azkune

## LAN BERA, BESTE JENDE BAT HAMAHIRU URTEREN BURUAN

‘Egunkaria’ Sortzen zen orduan eta ‘Egunkaria’-ren aldeko herri batzordea da gaur egun. Euskarazko kazetaren aldeko lana da bien egitekoa, eta formulak ere berdintsuak dituzte

### Oihana Elduaian

**H**elburua: euskal kazeta. Lanak: harpidetzak lortzea, bono eta akzioen salmenta, materialaren salmenta. Bi talde, bi garai. Hamahiru urteko tartea ez da alferrik igaro, baina 1990ean eta 2003an lan bera egiteko sortutako bi taldeen lekukotza jaso du Azpeitiak, Euskal Herriko beste herri askok bezala. Bederatzi bat lagun biltzen ziren duela hamahiru urte; aurtan hamabost bat dira, guztiak berriak. Baina denek dute gauza bat amankomuna: euskarazko kazeta bat esku artean izateko nahia eta desira.

Aitor Larrañaga eta Jose Luis Otamendi duela hamahiru urte *Egunkaria* Sortzeneko kide izan ziren. Artxibo txikian aurkitutako paper zaharrei hautsakenduz, beraien lana zein zen gogoratu dute. Batzordeak sortzeko deia Euskal Herrian Euskaraz-etik (EHE) etorri zitzairen orduan. “Gu EHEn ibil-

tzen ginen eta handik etorri zen herrietan taldeak sortzeko mezua”, dio Aitor Larrañagak. Orain *Egunkaria*-tik bertatik iritsi da oihua, eta azpeitiar langileek hartu zuten ardura, hasieran. Bi batzordeek martxan jartzeko modu bera izan zuten: deialdi zabala. Mikel Azkunek poz ederra hartu zuen 1990ean Azpeitian kartelak ikusi zituenean: “Banekien beste herrietan batzordeak sortzen ari zirela, eta zain egon nintzen Azpeitian noiz sortuko. Euskal prentsa sortzeak izugarriko ilusioa egiten zidan”.

Ioritz Aizpuru ez zen jabetu ere egingo duela hamahiru urte Azpeitian egindako lehen bilerekin, berak zazpi urte besterik ez baitzuten. Urteak ez dira alferrik pasatzen, eta aurtengo bilerak ez zaizkio oharkabean pasatuko, bera partehartzailerik baita. “*Egunkaria*-ren itxiera Euskal Herriaren kontrako beste eraso bat iruditu zait, eta horren aurrean zerbait egin beharra dago”.

**DIRUA BILTZEKO MODU BERBERAK.** Taldeak osatu ondoren diru bilketa hasi zen bai 1990ean eta baita aurtan ere. Zer diren kasualitateak, batzordeetako partaide bakoitzak hamarna bono saltzeko lana hartu zuten, 1990ean eta 2003an. 1990ean ehun mila pezeta inguru bildu zituzten bono laguntzekin. Aurtan, gutxienez, hamasei mila euro lortzeko asmoa zegoen bono bidez; 50 eta 300 eurotan zeuden salgai, eta eskuratzeko lau leku zeuden herrian: Luba aholkularitza, Urbistondo margoak, Sarea informatika eta Uztarría. Lehengo astean bukatu zen bonoen garaia, akzioen helteko.

Akzioen salmenta da bi batzordeek egin beharreko beste lan bat. 1990ean bi eratako akzioak zeuden: bost mila pezetakoak eta 500 mila pezetakoak; orain, berriz, 50 eta 300 eurokoak daude, bonoak bezala. Merkeenetik 40 akzio saldu zituzten orduan, garestien kontua, ziurrenik egiteko errazagoa izango bazen ere, ez da jasotzen eskuizkribuz eginiko artxiboan. Aurtan 54 mila euro lortzeko erronka dago.

Dena ez da berdina, ordea, aurtengo herri batzordeak ez duelako publizitate bila inora joan beharrik izan. 445 mila pezeta lortu zituzten publizitatearekin 1990ean; gero, Azpeitian ospatu zuten *Egunkaria* Egunean iragarkiekin eginiko hiru orri erraldoi erakutsi zituzten plazan. “Komertzio eta tabernatara joaten ginen, atez ate, *Egunkaria*-ren lehen zenbakirako publizitatea eskatzera”, gogoratzen du Mikel Azkunek.

**HERRIAN JARRERA ONA.** Bi batzordeetako kideak herrian oso jarrera onarekin aurkitu zirela eta direla diote. 1990ean “jende





“ ‘Egunkaria’-ren itxiera Euskal Herriaren kontrako beste eraso bat da, eta zerbait egin behar da”

Ioritz Aizpuru



“ ‘Egunkaria’-ren aldeko giroa harpidetzatan eta akzio salmentan antzeman behar da”

Sorkunde Urbistondo



“ Bonoak saltzea oso zaila ez den arren, zaila egiten zait jendeari dirua eskatzera joatea”

Ander Bastida



OIHANA ELDUAIEN

**BONOETATIK AKZIOETARA.** Orain arteko diru bilketa bonoen bidez egin dute herri batzordekoek, eta gero akzio bihurtuko dira bonoak. Bonoak norbanakoak erosi badi-tu ere, zenbait enpresak eta taldek ere egin dute ekarpenik. Orain akzioak jarri dira salgai. Ar-gazkian, koadrila bateko kide bat ageri da, lagunek bildutako diruarekin bonoak erosten.

gehienak jarrera ona erakutsi zuen”, Jose Luis Otamendi akordatzen denez. “Argia-tik aurrelana ere egin zen, eta ez zen per-retxiko bat izan”. Bazen, ordea, jarrera desberdinik: “Euskalgintza munduan ilusio handiarekin zegoen jendea, baina EAJtik errezelo ikaragarria nabari zen”, dio Aitor Larrañagak. Artxibo txikian baieztatu daite-ke esandakoa, EAJk ez baitzion pezetarik eman Egunkaria Sortzen-i.

Ander Bastida gaur egungo *Egunkaria*-ren aldeko batzordean dago, eta haren hi-

tzetan, “herrian jarrera ona dago, eta ez da oso zaila izan bonoak saltzea, baina zaila egiten zait jendeari dirua eskatzera joatea”. Gainera, “materiala erraz saltzen da”, Ioritz Aizpuruk dioenez. Hala ere, “udal erakun-deetatik Liburutegia baino ez da egingo harpidedun”, dio Sorkunde Urbistondok, hau ere *Egunkaria*-ren aldeko herri batzor-deko kidea gaur egun. Haren esanetan, “kalean dagoen *Egunkaria*-ren aldeko giroa harpidetzatan eta akzio salmentan antze-man beharko litzateke”.

## Proiektu berria, akzioak salgai

● Egunkari berria uda aurretik kalera-tzeko asmoa dute. Horretarako “behar-beharrezkoa” da bost milioi euro (800 milioi pezeta) biltzea datozen bi hilabe-tetan. Herritarrek eman beharko dute diru kopuru handiena horretarako, Azpeitan 54 mila euro (bederatziko milioi pezeta) lortzeko erronka dute herri batzordekoek. Diru bilketa hori akzio bidez egingo da. 50 euro eta 300 euro-ko akzioak daude.

Akzio horiek Azpeitiko batzordeko jendearekin kontaktuan jarriz eros dai-tezke, baina egongo da salmentarako toki finkorik ere. Herrian lau leku egon-go dira akzioak erosteko: Luba aholku-larritza da bat, Enparan kalean; Sarea informatikan ere egongo da erosteko modua, Paulo VI.lean; eta baita Sanjuandegiko Salbe auzoan dagoen Urbistondo Margoaken ere. Toki horie-tan ez ezik, Uztarría herri aldizkariko egoitzan ere eskuragarri izango dira akzioak.

Aurretik bono bidez dirua eman zute-nak ere proiektuko akziodun izango di-ra, bono horiei dagokien diru kopurua akzio bihurtuko baita.

Diru kopuru hori guztia bilduta ere, egunkari berriak beharrezkoak ditu ira-kurleak bizirik irauteko. Harpidetza kanpainak aurrera segitzen du, eta Azpeitian 450 harpidedun berri lortu behar dira.



**amuko zubitik** Jabier Altuna**EMAKUMEAK**

**L**agun batek emakumeei buruzko idatzi bat eskatu zidan eta hauteskondeak laster dirrela eta... nire azken idatzi hau horretarako erabiliko dut; baina, hasi aurretik eskerrak eman nahi dizkiot Uztarriari nire iritzia azaltzeko eman didan aukeragatik.

Nire seme zaharrena jaio zenean, emazteak erditu eta ama ikusi nuenean hau esan nion: elizetako santu guztiak kendu eta bera eta aurreko belaunaldietako emakumeak ipini behar zituztela; erditzean emazteari mina hasi eta 8 bat ordura sartu zioten epidurala; ordua joan eta etorri, emaztea min haiek jasaten ikuste oso gogorra egin zitzaidan (hari, zer esanik ez) eta orain urte batzuk epiduralik gabe 6-8-10 ume izaten zituztela pentsatzea...

Aste Santuan berriz, emaztea lanera joan da eta ni gelditu naiz umeen kargu; benetan, pazientzia behar da (nik gero eta gutxiago...) egunero zirko hori ikusteko: gosaltzeko hau ez dut nahi, bestea gehiago gustatzen zait;

galtza horiek ez, haiek; txikiak ez dakit zer mahaitik bota eta sukaldia zerri eginda; ohea egiten ari naizela bat negarrez besteak tximetatik tira diolako; hurrena bestea, buruan bideoaren karatulaz jo duelako. Goazen parkera: bata leku batera, besteak bestera; beste iskanbila, bazkaltzerakoan: oraindik ez... Eguraldi txarrarekin zer esango dut bada, etxea hankaz gora jarri ondoren nazkatzen dira eta berriz kolpeak, bultzadak... eta negarrak. Gaztetxoagoa nintzenean, amak beti berdina esaten zuen: noiz bukatuko ote dira oporrak? Lau anai-arreba ginen, nik bi ume ditut, zer ote zen hura... Behin, ama nazkatu nuen batean, burduntzalia eskuan eta harekin eman zidan; ez nau harritzen hura egin izanak, askotan sentitzen duzun ezinarekin.

Hau etxean lana egiten duten emakumeek; etxeokoz gain kanpoan ere lana egiten dutenek (nahiz eta emakumeren batek edota amamak asko lagundu) merezi dute zerbait.

**azketako ude** Ainhoa Odriozola**PAZKO EGUNETIK  
EVERESTERA**

**A**pirilaren 20a Pazko Eguna —goraintziak orrikide den Kepari— eta Aberri Eguna, ospatu ohi dituenarentzat behintzat. Aberri Egunaren harian eskailarapeko komentarioa: ikurrina gutxi aurten balkoietan. Ez da aurten go kontua, tamalez; badirudi Aberri Egunean ikurrina zintzilikatzeko ohitura galtzen doala.

1976ko urtarrilaren 19an, San Sebastian bezperan, jarri zen antzineko ikurrina Azpeitiko udaletxean. Plaza leporaino, jendea gainezka, baita emozioz ere. Benetan hunkigarria izan omen zen. Egin ahal zuenak egin, eta bestela erosi, jende guztia egin zen ikurrina baten jabe. Hurrengo egunean hiletan omen zen herrian, eta ikurrina azpitik (plazan) pasatzen zen lehen hildakoa etxekoa izatea ilusio eta ohore izan omen zen zenduaren familia-arentzat. Nik lau urte nituen, eta kontatu dida telako dakit. Ondorengo ere kontatua, bizilagun batek alegia: ikurrina ikusi zuten aurrene-

ko aldia Iparraldeko dantzari talde batek ekarri zuenean izan omen zen. Oilo ipurdia azalean, zirrarak hartuta... sekulako emozioa.

Garbi dago ikurrinaganako sentipen horiek itzalita daudela gaur egun, baina berreskuratu behar genituzke neurri batean. Bakoitzak eman diezaiola ikur horri nahi duen esanahia, sinboloak sinbolo eta zapiak zapi, komunitate, herri, nazio, elkarte, batasun edo lurralde bezala daukagun zeinu bakarra da eta. Kasu honetan ez diogu lortu nahi dugunari begiratu behar (hori beste kontu bat da eta asko dago esateko eta ikusteko), lortu dugunari baizik, eta ikurrina bera lorpen handia izan zen. Manten dezagun.

Klandestinitate garaietara bueltatu beharko agian, lortutakoa estimatzeko. Eta ikurrina ikusi ahal izateko, Everestera bueltatxo bat. Han behintzat jarri zuten eta... jarraituko ahal du? Azpeitian ikustea gero eta zailago.

**puntie ateaiez**

Enekoitz Esnaola

**POLITIKA**

**Z**elai Luzen ez dago zakarrontzirik. Betharramdarretan saskiek ez daukate sarerik eta futboleko ateez ere ez. Miserikordiko ordulari historikoa bostak laurden gutxian dago denboralean. Bizikletak uzteko leku publikoa Zapo Txikin baino ez dago. Lasao alderako paseolekuan ez dago argirik... Alderdien programatan ez dago horrelakoei konponbidea emateko proposamenik. Txikieriak dira. Baina gauza txikiek egiten dute zerbait handia; politika, adibidez.

Erabaki handiek ere egiten dute handi politika. Herriko programatan, ordea, ez dago Habearen udal parte-hartzea bermatuko duen ideiarik.

Eskubide zibilak ukatzen direnean, ez dago demokraziarik, eta orduan politikak zentzurik ez du.

Martxa honetan, ordea, Realaren ilegalizazioaren zain egon beharko dugu gizartea mugitzen hasteko...

**bota bertsue**

German Zelaia

**POLITIKOAK****ASTO HILEAN**

Zein konpasetan egin behar dugun dantza momentuan badaukat nahikoa zalantza zauri berean gera liteke arantza mezu faltsuak eta astoan arrantza horrela joango da aurtengo maiatza.

Mitin aspergarriak ta hainbeste endredo horregatik jartzen naiz astoan bezero naturaren legean jartzen dira bero eta astakume bat litekeena gero bestengandikan ez tet hainbeste espero.





**HAZPARNE.** Azpeitia-  
rekin anaitutako Lapur-  
diko herrian inaugura-  
tu dute ikastolaren  
eraikin berria, Frantziako Esta-  
tuaren aldetik makina bat arazo  
izan arren. 112 ikasle dabilta  
gaur egun Ezkia Ikastolan.



**LAGUN ONAK, IRAURGI.**  
Denboraldi ederra egi-  
ten ari dira Lagun Onak  
futbol taldea eta Iraurgi  
saskibaloit taldea. Lagun Onak  
3. Mailan lehen tokietan da eta  
Iraurrik EBArak igotzeko kan-  
poraketak jokatuko ditu.



**UROLAKO ARRAINAK.**  
Arrantzarako garaia  
dela eta, azkenaldian  
arrantzan jende asko  
dabil Zelai Luze inguruan, Uro-  
la ibaian sartuta. Han harrapa-  
tutako arrainak jan egiten ote  
dituzte!

## uztarria.com-eko eztabaidie

**GAIA:** Uztarria Kultur Koordinadoraren web guneko 'ezta-  
baidan' atalean udal sustapeneko etxebizitzaren planari bu-  
ruz sesioan dabilta kide batzuk. Hona hemen gutun  
horietako sorta bat:

### Lau ideia

Hasteko, ideia ona irusitzen zait. Bigarren-  
goz, zalantza bat udal sustapenekoak di-  
rela irakurri dut. Beraz, ez al dira babes  
ofizialekoak? Hirugarren goz, kritika bat:  
urtean 7,5 milioi pezeta irabazten dituenak  
horrelako proiektu batean sartzeko aukera  
daukara jartzen du, eta ez zait batere ondo  
iruditzen hori, horrenbeste diru irabazten  
duenak bestelako etxebizitza erosteko  
aukera ere badaukalako. Eta laugarren-  
goz, zera: urtean 1,5 milioi pezeta baino  
gutxiago irabazten duenak zergatik ez  
dauka aukerarik proiektu horretan sartzeko?  
Gutxi daukana lagundu behar du poli-  
tikoak.

Neu aurrena

### Guztion ardurara da

Zergatik orain triptikoz bonbardeatu  
Azpeitiko buzoiak? Azken hamabi urteetan

ezer ez da egin etxebizitzaren kontua dela-  
eta, atzean interes ekonomiko ugari egon  
direlako; Azpeitian bezala beste herrietan  
ere.

Gure herrian ematen du lau urtean behin  
buzoneo bat eginda nahikoa dela asmo  
onak azaltzeko. Niri ez zait ondo iruditzen:  
batetik, planteamendua oinarritik pozoin-  
duta dago, eta ez dio herriak gai honen  
inguruan duen arazo nagusiari erantzuten.  
Eta bestetik, berriro ere, lotsagarriki gizar-  
te sektore behartsuena kanpoan gelditzen  
da.

Oinarrian denok onartuak ditugu etxebizi-  
tzen inguruan ematen diren espekulazio  
legeak: etxe honek hasieran hamar balio  
du; gero enkantera ateratzen da, beste  
batek 15 ematen dizkit, orduan nik 16 bai  
baina ondoko etxe berdinagatik hogeit  
emango dizkidate eta nik, azkenean 21  
ordaindu, baina hori bai, hamar zurian eta  
hamaika beltzean.

Egoera honen ardurara guztion gain eror-  
tzen da: konstruktoreetan, inmobiliarietan,  
Udalaren eta beste erakundeetan, lagun-

tzadun etxeen kontrol eskasian, norbana-  
koon diru anbizio ustelean...

Udalak aurkeztu duen plana mugimendu  
zuritzaile eta guztiz elektorala da, "beste  
guztia gure irudimenak eragindakoa da, ez  
eman beste bueltarik".

Neu bigarrena

### Eta soluzioak?

Ados nago diagnosian, eta batez ere ardu-  
ra guztion gain jartzean (nahiz eta batzuk  
besteak baino ardurara gehiago eduki).

Baina, egoerari buelta emateko ez dut  
soluziorik ikusten. Proposamenik bai?

Neu bigarrenari

### Bost proposamen

- Etxe hutsen inguruko diagnostikoa eta planteamendua.
- Etxe bat baino gehiago daukatenei zergak gehitu etxe hutsak izateagatik.
- Etxebizitza publikoak erosi ezin erosi dutenentzat.
- Alokairu soziala gazteentzat.
- Okupazioaren onarpenera eta zabaltzea.

Proposamenak



## akullue



Leire Ostolaza

MAIATZERAKO  
GIROAREN  
PLANA

**U**daberri betean aurkitzen garen seinale da dugun eguraldi nahasia, etorkizuneko mapak zalan-tzaz betetzen ditu zerura begira bizi diren izakiak. Badirudi munduak hankaz gora jartzeko joerari eutsiko diola maiatzean ere, eta aurrikuspena berbera izango dela bizi garen lur zatitxo honetan ere: hauteskunde haizeak batzuen azpiko arropa zikinak azalduko ditu, eta besteenak zurrunbilo batean Madrileran eramanak izango dira, agian.

Betiko antizikloia saiatuko da erauntsien ondoren betiko lekua mantentzen ez badu behintzat mendebal indartsuak bere tronutik erortarazten.


Gezur euri-jasak izango dira, trumoi eta tximistak barrualdean, azalean eguzki kolore ederra, hortzen ahoko zuria karteletan eta fenomeno atmosferiko arraro batek kaleak eta lorategiak distiratsu apainduko ditu.

Agian, itsasaldeko boztrakak ezingo du eguraldian parte hartu, hegoaldekoak debekatu nahi duela eta hala ere antizikloiak gaizki iruditzen zaiola erakutsi nahiko du, baina ez da euripean jarriko.

Gezurkien keak arrazoia-  
ren lainoak ezkatutuko ditu, kea haizeak eramango du eta lainoak ere bai, baina hauek itzuli egingo dira.

## galdeiez

## Kultur ekitaldiak gustuko al dituzu? Zer motatakoak atsegin dituzu gehien?



## kartak

Akats bat  
zuzenduz

Joan den apirileko Uztarrria aldizkarian eta Inazio Urrestilla Lapatx jostunari eginiko solasaldian, aurrez herrian izandako jostunetako bat bezala aipatzen zen Demetrio Egiguren, beraren tokian Nikanor Bereziartua agertu beharrean. Bakoitzari berea...

Imanol Elias Odriozola

Izarraitz mendiko  
lurrak eta  
lurjabeak

Uztarrarian, Azpeitiko aldizkariko apirileko alean *Udal erabakia* yek atalean agertu den berriaren aurrean honako oharpen hau eman nahi dut aditzera: Izarraitz mendiko lurren jabe bakarra ez da Azpeitiko Udala. Azken sal-erosketan, orain arte jabe izan den Sociedade Zahar-etik (37 lurjabe osatua) lau kidek (bi Zestoakoak eta bi Azpeitikoak) ez dute saldu bere jabetza. Lau hauek lehen zegoen jabe partaidetza berdinarekin jarraitzen dute.

Lur sail hori banaezina da eremu zatietan; osoaren jabetza

dago banatua kideen artean, hainbesteko desberdinetan.

Gaur egun, Azpeitiko Udala eta lehendik dirauten beste lau kide dira mendi sail horren jabeak, bakoitza berari dagokion parte kopuruarekin, jakina.

Justo Bereziartua Zendoia

Esker mila,  
baina  
ez adiorik

Badira urte batzuk Antxieta Antzerki Taldea aski isilik dagoela herrian. Zenbait urtetan emaitzez eta lanez beteriko urfeak bizi eta gero, zaletasunak eragirik eta zaletasuna sorrarazteko sortu zeh Antxieta taldeak pozarren ikusi du bere baitatik jaio zen eta hainbat eta hainbat aktore, laguntzaile eta antzerkizalek bide berriak jorratu dituztela, beren bizitzetan bezala arte eszenikoetan ere. Eta berriro diogu, pozarren ikusten dugula.

Denok ezagutzen ditugun izenak eta ezkutuan gorderik egin ditugun lanak dira euskal kulturaren eremuan nekatzeke pilatu dugun ondarea: sormena, emanaldiak, aktore-plantela, denon aberasgarri izan den eskarmentua...

Eta gure saiakerarekin herria-

## Arantxa Ibarbia

(langilea)

**“Kultur ekitaldiak asko gustatzen zaizkit.** Nire ustez gainera, alde horretatik behintzat, herriaren aukera polita dagoela ikusten dut. Gehien gustatzen zaidan ekitaldia antzerkia da. Aukera gutxien ere atal horretan dago. Normalean joaten naiz ekitaldietara, baina denbora gehiegirik ez dudanez, geroz eta gutxiago joaten naiz. Orain gehienbat umeei bideratutako kultur ekintzetara joateko ohitura dugu, hauentzat gainera aukera zabala egoten baita, herriaren geroz eta aukera handiagoa dago”.

gandik jaso duguna beti herriari eman diogulako, urte hauen buruan herriaren esku uztea erabaki dugu herriari itzultzeko geratzen zitzaiguna. Horrek, zehazki, ondorengo esan nahi du: 22 urteko ibilaldian pilatu dugun ondare osoa herriko kultur taldeen esku uztea erabaki dugula.

Ondare horretako hainbat gauza herriko kulturgintzan erabiltzen dira jadanik, eta halaxe jarraituko dute aurrerantzean ere; eta falta zitzaiguna —hau da diru-ondarea— herriko zenbait kultur taldetara bideratu dugu jada.

Hauxe da gure ekarpena herriaren eskuetan uztean herriaren aurrean esan nahi duguna: mila esker denoi garena zuengandik jaso dugulako eta hortik izango garena ere zuekin egingo dugulako.

Esker mila laguntzeko prest izan zareten erakundeoi.

Esker mila ikusle, zaletu eta herritarroi, beti eman diguzuen harreragatik.

Baina ez adiorik: zuen artean jarraitzen dugu, ahal eta daki-gun neurrian herritarren kultur ahaleginean lankide izaten eta —nork daki— agian biharko egunen batean berriro taulagainean emanaldi berriak ematen.

Hurrena arte!

Antxieta Antzerki Taldea



## Jon Berastegi

(langilea)

**“Zerbait interesgarria dagoenean joateko ohitura badut.** Hala ere, aukera handiegirik ez dagoela uste dut eta horregatik, askotan hiriburuetara joateko ohitura dugu. Herrian ekitaldi gehiago eta desberdinak, aukera, jartzea proposatuko nuke”.

## Lierni Garate

(langilea)

**“Gustuko ditut kultur ekitaldiak baina ez naiz sarritan joaten.** Noizean behin zerbait be-

## UZTARRIAREN WEB ORRIKO INKESTA

**1. GALDERA: Zer motako erakusketak dituzu gustukoenak?**

- Pinturenak: %51
- Argazkienak: %41
- Eskulturenak: %1
- Bestelakoak: %7

rezia baldin badago bai baina bestela ez. Gehien gustatzen zaizkidanak pintura erakusketak izaten dira. Herrian nahiko erakusketa egoten dira baina zerbait hobea ikusteko kanpora atera beharrean aurkitzen naiz”.

## Antton Uranga

(ikaslea)



**“Niri asko gustatzen zait joatea.** Gu, gazteontzat festetan egoten dira askotan ekitaldiak. Baina horretaz gain ere aukerak badaude. Niri zinea gustatzen zait gehien, baina

onak bakarrik. Ikastolan andereño-ak esaten digunean joaten gara pelikulak ikustera. Beste ekintzetako bat ibilaldietara joatea izaten da eta hori ere gustokoa dut”.

## Iñaki Agirre

(ikaslea)



**“Asko gustatzen zaizkit antolatzen diren ekitaldiak.**

Guretzat antolatzen diren ekitaldiak nahiko sarritan egoten dira. Aukera ere handia da. Nire gustoko ekintzak zinea eta kirol ekitaldiekin zerikusia dutenak izaten dira”.

## Kaixo Uztarría. Aspaldiko!

Villepinten (Frantzia), martxoaren 15ean idatzia.

Orain dela gutxi, patioan ordu eta laurden bueltaka ibili ondoren, ziegara sartu naizenean, poz ederra eman dizu. Banuen esperantza, noiz edo noiz iritsiko zinela eta dagoeneko esku artean zaitut. Senideak ere saiatu izan dira, bisitetan, zu hona sartzen, baina beti atzera bota izan zaituzte. Orain bide onetik eta korreoz iritsi zara.

Gogoan dut, azkenengo aldiz ikusi zintudan eguna, duela urte eta erdi zen. Denbora honetan guztian zure falta handia sumatu izan dut; badakizu, herritik urrun ibili gara eta zuk ere ez zenuen jakin ere egingo non genbiltzan; zaila gu topatzea.

Orain behintzat badakizu non nagoen; espero dut, lehen bezalaxe, herriko kontu guztiak ekarriko dizkidazula. Herritik ihes egin genuenetik zure falta handia sumatu dugu. Zu sortu zinenetik zu izan zara herriko kontu guztiez enteratu eta beste azpeitiar guztioi kontatu izan diguna. Badakit izugarritzko lana egiten duzula, eta horregatik ere eskertu nahi zaitut. Orain ere ikusi dut kontu pilo batekin etorri zarela, baita argazki pilo batekin ere. Ez zaude txarra

## bada kejie!



## Norabide bakarra?

Ildefonso Gurrutxaga kalea autoentzako norabide bakarreko kalea da. Hala jarri zutelako, logika handirik gabe. Misericordia aurretik Pablo VI.a kalera sartzeko aukera bakarrik ematen du, baina bi bide ditu, bi auto sartzen dira. Beraz, zergatik ez da jartzen bi norabideko aukera? Era horretara, Pablo VI.a auzoak autoentzako bi irteera izango lituzke, eta, hala, Hartzubia aldeak arindua hartuko luke. Ez da ba zaila!

I. Alkorta

eginda. Lehen bezalaxe jarraitzen duzu, fin-fin eta ahal duzun guztia azaltzen. Oraingoan ekarri dizkidazun albisteak ere batzuk onak eta beste batzuk txarrak dira. Normala da, eta ulertzen dut, zaila baita guztiak onak eta ederrak izatea.

Albiste onen artean bat aukeratzekotan, alkatearen agurra aukeratuko nuke. Badakit egin dizkiozun galdera askori ez diola erantzun; baina lasai, beti horrelakoxea izan da eta orain ere, bere agurrean, ez du ematen asko aldatu denik.

Albiste txarren artean beste bat aukeratzekotan, zure lagun handi baten atxiloketa aipatuko dut, *Euskaldunon Egunkariaren*. Badakit zuretzako ere izugarritzko kolpea izan dela eta nola edo hala animatu nahi zaitut. Badakit izugarritzko ezina sentitzen dela, baina aurrera egin beharra dago. Guk ere, Espainiako eta Frantziako espetxeetan gauden preso politikoek, aurrera egin behar dugun bezalaxe. Orain ikusten ari garen eraso hauek guztiak helburu bakarra dute, Euskal Herria leku guztietatik suntsitzea. Baina gogor heltzen badiogu erasoaldiari, eta gainera gure proiektu guztiak aurrera eramaten baditugu, egon ziur laster lortuko dugula gure betiko ametsa: Euskal Herriaren askatasuna.

Jarraitu Azpeitiko berriak leku guztietara banatzen, eta zorte ona izan ezazu.

Badakit honaino etortzeko kilometro asko egin behar izan dituzula eta baita ere *fulla* (*katxoa*) batzuk pasatu beharra izan duzula, baina zu lasai, pixkanaka-pixkanaka nire senideak bezalaxe ohitzen joango baitzara. Besterik gabe, zaindu zaitetz eta apirilean ere etor zaitetz Azpeitiko berriekin, gaur etorri zaren bezalaxe. Begirunez,

Jabi Agirre *Egurtze*



## kanpoko begiradie



Amets Arzallus (bertsolaria eta kazetaria)

Azpeitiarrok nola ikusten gaituen idazteko eskatu dio Uztarriak Amets Arzallus hendaierari. Duela gutxi irabazi du laugarrenez Nafarroako Bertsolari Txapelketa. Komunikabideetan ere aritzen da. Hemen haren artikulua:

# AZPEITIARRAK

**B**i Iparraldeko joan omen ziren behin Azpeitira bazkaltzera. Otordu ederra egingo zuten, eta iritsi zen behintzat postrea auke-ratzeko ordua. Kamarerak zer nahi zuten galdetu, eta, "gasna" gustura jango zuketela erantzun, hauek. "Ez daukagu ba —kamare-rak segituan— nahi baduzue, *arroz con leche*, flana, *tarta de queso*, fruta, edo gaztaia daukagu". "Nik gasna nahi nuen baina... Segur zira ez duzuela gasnarik?", tematu zen Iparraldekoa. "Ezetz ba! *Arroz con leche*, flana, *tarta de queso*, fruta, edo gaztaia, esan dizut!" (kaskagororean ez diozu inoiz irabaziko azpeitiar bati). "Bon, bon, untsa, gasnarik ez bada kafea hartuko dut" esan, eta hala konpondu omen ziren. Eta kafea hartzen ari zela han ikusi zuen kamarera ondoko mahaira gasna, barkatu, gaztai puska eder bat zerbitzen. Geroztik Azpeitiko jatetxeek oso fama ona dute Iparraldean.

Niri ez zait halakorik gertatu. Izan ere, ez dut gaztarik jaten. Eta gainera, azpeitiarrez *pixket ikixi det* ibilian-ibilian. Bertso eskolan ez baita batuan egiten. Hala ere, aitor dezadan Iparraldeko hura ez dela azpeitiarrek arazoak sortzen dizkieten bakarra. Orain dela pare bat hilabete, arreba txikia, etxean bakarrik ikaratu egiten zela-eta, nirekin eraman nuen asteazken arratsaldean Azpeitiko bertso eskolara. Egin genuen, ondo edo gaizki, bertsoan, txorakeri pila bat esan, barre batzuk bota, eta abiatu nintzen amonaren etxerantz autoan. Zestoan sartu arte, arreba txikia, isilik. Zestoa pasatu, eta berdin. Ez da oso normala hori beregan, eta Arroako autopista irteerako errotondan, galdetu egin nion ea zer zuen. Hara zer erantzun zidan: "Amets, zuk *Minixtro*-ri zerbait ulertzen al diozu?". "Bueno, zerbait, zerbait, tarteka-tarteka bai... zer ba?". "Nik,

“ Iparraldekoak gasna eskatu zion kamarerari; honek ez zuela. Kafea hartzen ari zela han ikusi zuen ondoko mahaian gaztaia zerbitzen ”

“ Azpeitiarrek badute baserritar puntu bat, eta bestalde, badute moderno ukitu bat ”

“ Han naizenean, zuka egin eta arraro begiratzen didate. Hendaian, euskaraz egitean begiratzen didate arraro ”

ezta ezerre! Ezta euskeraz ai danik ere! Eta bere pasadizok kontatzen hasten darian, oaindik eta gutxio!". "Zuk ere parre ein dezu ba hoiek kontatu ditunian", nik. "Bai baño parre noiz ein bihar zan konturatzen nintzala-ko, bestela...".

**HIZKERA ETA IZAERA.** Egia da, bai, azpeitiarren hizkera oso itxia dela, eta kanpotik datorrenarentzat ulertzen nahiko zaila. Baina hizkera denaren alderantzizkoa da azpeitiarren izaera. Izaeraz irekiak, eta ulertzen errazak dira. Naturalak baitira. Naturalak, eta pixka bat xebreak ere bai. Izan ere, badute baserritar puntu bat, eta bestalde, badute moderno ukitu bat. Azpeitiarrek, hanka bat Errezilen eta bestea Donostian (eta puzkerra beti Azkoitira). Bereziak baitira, zinez. Goizean igual joango dira urrezko aizkora ikustera, eta arratsaldean zezen korridetara. Xebreak, azpeitiarrak. (Klaro, nik, ezagutzen ditudanen arabera juzkatzen ditut azpeitiar denak, eta nik ezagutzen ditudanak gehienbat bertso eskolakoak dira. Baina lasai, nik ere pentsatzen dut 13.000 biztanleren artean, tartean-tartean egongo direla horiek baino zuzenagoak. Kostatuko zaie, baina, hain naturalak izaten!).

Tira, horrela segitzen badut, hurrengoan, zezena orde z agian ni akabatuko naute, eta orduan itzul nadin loreetara. Egia esan, Iparraldetik Azpeitira joaten naizenean, halako arnas berri bat bezala hartzen dut. Azpeitian, zuka egin eta arraro begiratzen didate. Hendaian, euskaraz egitean begiratzen didate arraro. Azpeitian badute halako harrotasun bat beren herriarekiko, beste askok ez duguna, eta behar genukeena.

Laburbilduz, Azpeitiak gasna falta du, baina baditu beste gauza asko. Askok eta onak. Nik, hara egindako bueltetan, horietako batzuk ikusi ditut. Denak ez oraindik. Eta horregatik, gerora ere segituko dut Azpeitira bueltaka. Txangurrorik hegan, adibidez, ez baitut oraindik ikusi.

**zuk ere eman ezazu albistea, agenda, botoa, iritzia...; hartu parte  
Azpeitiko atayen, erraza da**

**www.uztarria.com**







# ERREMONTEAREN OINORDEKOTZA

Matxindarren sendiko bost erremontista, eta lau profesionalak dira. Batek, 'Matxin II.a'-k, orain gutxi utzi dio erremontean jokatzeari

Ion Aranburu

**S**ei erremontista matxindarren bi belaunalditan. Bi anai, Iñaki eta Manuel lehen belaunaldian; eta lau lehengusu, Xuban, Igor, Ibon eta Gorka bigarregoa. Sendian ere erremonteko postuak majo betetzen dituzte: bi atzelari, Iñaki Agirrezabala *Matxin I.a* eta bere semea, Igor Agirrezabala. Besteak, aldiz, aurrelariak. Horiek dira matxindarrak, Matximentakoak. Jatortirik datorkio goitizena erremontista sendi honi.

Iñaki izan zen familiako lehen erremontista. Azpeitian, frontoi luzeko eskola bat jarri zela jakin eta izena eman zuen. Iñaki, Manuel anaia gaztearekin etorri ohi zen erremonteko eskolara. Manuelek ere gustoa hartu zion erremonteari, eta hasieran jolas moduan hasi zena azkenean ofizio bihurtu zitzaion bi anaiei.

Bigarren belaunaldikoek denbora gutxi daramate erremontean jokatzeko. *Matxin III.ak* duela bi urte debutatu zuen profesionaletan. *Matxin IV.a* eta Agirrezabala berriz, joan diren ihauterietan hasi ziren profesionaletan jokatzeko, Azpeitian egin zen

erremonte jaialdian. Bigarren belaunaldi horrekin hasi ziren izenaren arazoak. Sendian zegoeneko baziren lau erremontista izen berarekin; beraz, belaunaldi berriko azken biek izen desberdinak hartu behar izan dituzte, *Matxin* gehiegi zirelako. Oraingoan abizena hartu dute Igor Agirrezabala *Matxin Iaren* semeak eta Gorka Agirrezabalak, oraindik debutatu gabekoak. Horrela jarraituz gero, laster beste izen bat topatu beharko dute.

Erremontean jokatzeko ikasi arte kirol zaila dela diote Matxindarrek, "baina behin ikasitakoan asko gozaten den kirola da". Partidak, berriz, "borroka" bezela definitzen dituzte. "Ikusleek beraien dirua bataren edo bestearen alde jokatzeko dute, eta gudan jarritako konfidantza hori defendatu behar izaten dugu".

**IZARRAITZ PILOTALEKUAN.** Entrenamenduak gehienean Izarraitz pilotalekuan egiten dituzte, asteazkenero. Baina ezin izaten dute guztiak batera entrenatu, lan kontuak tarteko. Baina, hala ere sendiko bost bat kide bildu ohi dira, famili giroan entrenatzeko. "Profesionalen artean ere

gelditu ohi gara frontoien batera joan eta elkarrekin entrenatzeko. Lau bat lagun elkartzen gara, eta geure artean jokatzeko ditugu partidak".

Denboraldia hasi orduko partidak ugari izaten joaten dira, eta askotan entrenamendu behar handirik ere ez dute izaten. "Urtean zehar ehun partida inguru jokatzeko ditugu, astean pare bat gutxienez. Partida kopuru horrekin ez dugu izaten frontoiko entrenamendu behar handirik". Manuelek gogoan du bere profesional garaietan jokatzeko zuten partidak: "Lehen jaialdi gehiago izaten ziren, denboraldian zehar 150-160 partida inguru jokatzeko baikenituen".

Erremontean jokatu ahal izateko beharrezkoa da frontoi luzea. Eta gisa horretako frontoiak dira Hernaniko Galarreta eta Iruñeko Labrit. "Azpeitian ere egiten dira erremonte jaialdiak santotomasetan eta inauterietan, baina ez da erremontean jokatzeko frontoi aproposa", diote matxindarrek. Azpeitian erremonteari inguruko afizioa pizten ari da. "Eskolan gaur egun 15 bat gazte dabilta, baina, hala ere, esku-huskaren itzalpean jarraitzen duen kirola da", diote.

## Manuel Agirrezabala 'Matxin II'.a Erremontista

"Iñaki anaia eta biok gara sendiko lehen erremontista belaunaldia"

Manuel Agirrezabala *Matxin II.a* erremonteko jokalaria izan da 23 urtean. Joan den hilaren 12an egin zioten omenaldia Matximentako erremontistari Hernaniko Galarreta frontoian.

● **Nolatan hasi zinen erremontean?**

Anai zaharraren bidez hasi nintzen. Bera izan zen lehenengoa erremontean jokatzeko gure familian. Umetan berarekin joaten nintzen frontoira, nola jokatzeko zuten ikustera, eta han sortu zitzaizkidan erremonteko zaletasuna.


● **Zenbat urtetan jardun duzu jokalaria profesional moduan?**

23 urtez jardun dut jokatzeko, 22 estelarren mailan. Zortea izan nuen hasi eta urtebetera erremonteko maila altuenean jokatzeko hastean.

● **Orain utzi egin duzu. Zergatik?**

Bai, utzi egin dut. Dagoeneko ohartu naiz ez naizela lehengoa. Gorputzak ez didala lehen bezala erantzuten. Baina, hainbeste urtetan erremontean jokatzeko jardun ostean, ez da erabaki erraza izan.





● **2.912.** Profesionaletan jokatzen hasi zenetik erremontean 2.912 partida jokatu ditu *Matxin II.ak*.

● **LAU TXAPEL.** Lau aldiz izan da erremontean bannaka txapeldun:

1989an, 1990-ean, 1992an eta 1994an.

● **23 URTEAN.** 19 urte zituenean hasi zen profesionaletan jokatzen. 23 urtez jardun du profesionaletan —22 urte estelarren mailan—.

● **Matxindarren erremonteko belaunaldiko beste erremontista bat izan zara?**

Bai. Anaia eta ni izan gara familiako lehen belaunaldia.

● **Familiartean hainbeste erremontista izatea zer da zuretzat?**

Ni asko pozten naiz nire ilobak ere erremontean jokatzen ikusita. Kirol sanoa da, eta nik bezala erremontetik bizitzeko bidea ni pozik egongo naiz.

● **Nolakoa izan da zure erremontista bizi-tza?**

Ona izan da. Eta zorte handia izan dut

urte hauetan guztietan. Egindako lanarekin oso gustora nago.

● **Eta orain utzi eta zer?**

Gaur egun Azpeitian dudana harategian egiten dut lan. Lanetik ateratzen naizenean jokatzen dut erremontean, baina denbora pasa.

● **Urte hauetan guztietan bitxikeriarik, pasadizorik pasatuko zitzaizun bada...**

Ez dut gertaera berezirik gogoan. Iruñerako bidean eta askotan elurra egiten ziregun, eta dezente kostatzen zitzaigun frontoira iristea. ●



**udal erabakiyek**

**Olazko baselizarako errepidea  
Aldundiak Udalari utzi dio**

Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak Loiolabidetik Olazko Baselizara doan GI-4181 errepidea Azpeitiko Udalari uztea erabaki zuen joan den apirilaren 1ean egindako bazarrean.

Azpeitiko Udalak Olazko errepidearen eskualdaketa iazko ekainaren 10ean eskatu zion idatzi bidez Foru Aldundiari, baina baldintza batekin: errepidea egoera onean egonda egitea

eskualdaketa. Beraz, Diputatuen Kontseiluak, errepideko gainazala konpontzeko obrak egin ondoren, errepidea "artapen egoera onean" dagoelako eta udalerrria gaindiko "interesik ez" duenez, udalaren eskaria betetzea erabaki zuen. Errepidea aurrerantzean Azpeitiko Udalaren esku egongo da, eta udala arduratuko da hura artatu eta ustiatzeaz.

Olazko Baselizarako GI-4181 errepideak 581 metro luze ditu. Hasierako zatia, 125 metrokoa, 6 metro zabal da; jarraian dagoen zatia, 456 metrokoa, batez beste 4,6 metroko zabalera du, eta errepidea Olazko baselizan amaitzen da.

**Xanti Antero**

**gurien...**

Txan magoa

**“Behin Azpeitiko jaietan egon nintzen eta herria iraulita zegoen”**

**Ilerea Uranga / Xanti Antero, Txan magoa bezala ezagunagoa, apirilaren 3an izan zen Azpeitian. Korrika Kulturalaren barruan bere trukoak eta magia egitera etorri zen Soreasu antzokira. Txikiak gehiago bildu ziren helduak baino, "ilusioz betetako" magia ekitaldia ikustera. Baina ez da aurreneko aldia Txan magoak Azpeitian magia egin duena.**

**• Ez da aurreneko aldia Azpeitian magia ikuskizuna eskaintzen duzuna?**

Ez, ez da lehendabiziko aldia, hiruzpalau aldiz behintzat etorri naiz.

**• Eta zer nolako harrera topatu duzu Azpeitian?**

Ondo, ondo. Beti ondo.

**• Oraingoan haurrentzako ikuskizuna egitera etorri zara. Baina, zein publiko duzu gustukoena?**

Magia aurkezteko era desberdina da. Hurrekin *handicap* bat duzu, magiaz sinisten dute. Haurra exigenteagoa da, magiaz sinisten baitu. Magia askoz dotoreagoa, konplikatua, sofistikagoa da helduei egitea. Helduak bere osotasunean baloratzen dute magia eta hurrek ez; hurrek ikusi nahi dutena emaitza da. Azken boladan helduei egiteko irrikitan nago, %90a umeei egiten baitiot, baina bi publikoek betetzen naute.

**• Bestela, etorri al zara inoiz Azpeitira?**

Festetan. Azkoitian egin genuen saio bat, eta bu-katu eta "Azpeitian festak dira" esan ziguten. Afaldu eta festara atera ginen. Udazen, oso festa *potenteak* ziren, herria iraulita zegoen. •



**Herriaren antolamenduaren arauak aztergai**

**Ilerea Uranga / Azpeitiko Udalaren eskariz, Chavarri SLko Jon Txabarri arkitektuak Arau Ordezkatzaileen Planteamendu aurrerapena egin du. Jose Mari Bastida alkateak dekretuz onartu eta aurrerapena udaletxean ikusgai izan da, apirilaren 24a arte; herritarrek aurrerapen horren gainean iradokizunak aurkezteko aukera izan dute denbora horretan. Aurrerapenak esku askotatik pasa dira, jende ugari hurbildu baita aurrerapenaren txostena eta planoak ikustera. Baina, oraindik Arau Ordezkatzaileen Planteamendua behin betiko onartzeko pauso garrantzitsuenak ematea falta da. Hurrengo pausoa: Udalbatzak hasierako onarpena eman behar dio. Gero, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta berriro ikusgai jarriko da, eta 30 eguneko epea izango da alegazioak egiteko.**

**datua**

**• ETXE BERRIAK.**

Arau Ordezkatzaileen aurrerapen planean, 1.600 etxebizitza berri egitea aurreikusten da.

**AURRERAPEN PLANA .** Aurrerapenak herriaren datozen urteetako etxebizitza, industria, azpiegitura, ingurumen eta bestelako beharrei erantzuna emateko asmoa du. Hala nola, azterketa ugariaren datuak jaso dira aurrerapenean: biztanleria, trafikoa —pasoko trafikoa %14koa da—, etxebizitzak —2001ean 6.040 etxebizitza zituen Azpeitiak eta hauetatik 1.533 hutsik zeuden; 1990etik 1.230 etxebizitza erakiri dira—, industria lurra eta abarren ingurukoak. Halaber, alde zaharren berreraikitzea, promozio publiko eta pribatuko etxebizitzaren politika garatzea eta etxebizitzarako hiriguneen birkalkifikazioa aurreikusten da bertan. Industria guneak non izango diren ere aurreratzen da.

Gaur egun indarrean dagoen Arau Ordezkatzaileen Plana 1992an onartu zen. •



## Sanjuandegin norabide aldaketak

Sanjuandegi auzoan errepideen norabide aldaketak egingo ditu Azeitiko Udalak. Norabide aldaketa hauek behin behinekoak izango dira, Sanjuandegi auzoko autoentzako aparkalekuak egokitzeko asmoa baitu udalak.



Sanjuandegi auzoa. / NEREA U.

## Diru bilketa teknikari plazarako onartutakoen zerrenda erabaki da

Azeitiko Udalak diru bilketa teknikari plaza bat betetzeko lehiaketa deitu zuen, oposaketa bidezkoa. Eta lehiaketara aurkeztutakoen artean onartuak eta baztertuak izan direnen zerrenda erabaki zuen apirilaren 9an. 71 pertsona aurkeztu dira lehiaketara, eta denak onartzea erabaki du udalak, inor ez da izan baztertua. Bestetik, lehiaketa oposaketarako epaimahai kalifikatzailea izendatu zuen udalak.

## Maiatzaren 10eko manifestaziorako deia

Idoia Mendizabal / Udalbiltzaren kontra egindako operazioa salatzen manifestazioa egingo da maiatzaren 10ean, arratsaldean, Bilbon. Azeitiko ASA taldeak manifestaziorako deia luzatu zien herritarrei, apirilaren 30ean Udaletxe aurrean egindako kontzentrazioan. ●



Udalbiltzaren kontrako operazioa salatzen egindako kontzentrazioa.

## zer dago gaixki, zer sobran, zer faltan?



**ERANTZUTEKO EPEA:** Maiatzak 20 (asteartea)

**HELBIDEA:** Uztarria, Julian Elorza Hiribidea 4, 2.a ezkerre; edo 227 posta kutxa (Azeitia)

**AKATSA ADIERAZI** (idatziz edo boligrafoz):

**IZEN-ABIZENAK:**

**TELEFONO ZENBAKIA:**

**IRABAZLEARENTZAT SARIA:** Etxe Zuri tabernan afaria.

### AURREKO ARGAZKIYE...



### ...ETA SOLUZIUUE



### IRABAZLIE: Monika Bayon



Monika Bayon izan da 39. garailea. Patxo Eduardo Berasategi harategiak emandako arkume bat irabazi du. Argazkian, Monika Bayon —eskubian— eta Patxo Eduardo Berasategi harategiko jabea ageri dira.



“Lotsa ematen diguten alderdiak literaturaren bidez maitatzera iristen gara”

**Joxean Agirre**  
(idazlea)

“Ameriketan, Renon, 1959an, lehen euskal jaialdian aldatu egin zen euskaldun izateko era”

**Miel Anjel Elustondo**  
(kazetaria)



Miel Anjel Elustondo.

“Mikel Aranburuz ez da batere hitz egiten, baina fenomeno bat da jokalaria bezala”

**Javier de Pedro**  
(Realeko jokalaria)



'Urrestillako musika altxorra' diskoaren azala. / J. R. ARISTI

## ‘Urrestillako musika altxorra’ maiatzaren 9an kalean izango da

**Nerea Aranburu** / Urrestillako Parrokiko abesbatzak diskoa grabatu du, eta maiatzaren 9an aurkeztuko da Urrestillan. Izenburua *Urrestillako musika altxorra* du. Urrestillan aspalditik egin izan diren eta oraindik egiten diren elizkizun eta gisa ho-

rretako ospakizunetan abestutako zenbait kanta eta abesti grabatu dituzte. Diskan agertzen diren abestiak Urrestillako Parrokiko abesbatzak berak abestu ditu. Grabatu duten abesti sorta horrez gainera, diskoan bestelako batzuk ere gehi-

tu dituzte: “Elizkizunetako kantekin batera, beste bertso batzuk sartu ditugu, lehengo eta oraingo urrestildarren bertsoak; horrela, beste kantekin batera tartekatuta agertzen dira”, diote abesbatzakoek.

Diska prestatzeko lanak berri, joan den udazkenean hasi zituzten: “Denbora behar izan dugu guztia prestatzeko. Grabaketa lanak ere luze joan dira. Azken hilabeteotan grabaketa lanetan murgilduta egon gara, ahal den ondoen atera zedin guztia. Taldeko partaideok ere oso gustora gelditu gara egindako lanarekin, eta emaitza hor dago, jendeak hori ikus dezan”.

Diska hau kaleratu ahal izateko Azpeitiko Udaleko Kultura Batzordearen diru laguntza jaso dute, eta diskaren mila ale maiatzaren 9an bertan jarriko dituzte salgai. Urrestillako Parrokiko abesbatza 35 emakume eta gizonezko osatzen dute. Iazko irailetik hona abesbatzako partaide kopurua igo egin da, Urrestillako hogeiei emakume sartu baitira abesbatzan, eta, era horretan, taldea sendotu egin da. ●

### motxien

## Lakrikun antzezle bila ari da

Lakrikun Antzerki Taldea, antzezlari berri bat prestatzen ari da. Eta horretarako antzezle bila ari da, antzerkiko zaletasuna duen orori zuzendua dago deialdia. Lakrikunekoekin harremanetan jartzeko 653 73 15 08 telefonora deitu besterik ez dago. Eta bertan zehaztuko diote entsaio eguna eta lekua.

## Maiatzean farmaziak gauez

Maiatzean honako farmaziak egongo dira, Azpeitian, gauez irekita: Garcia (943 81 12 74), maiatzaren 1,3,4, 14, 26 eta 31n. Aranburu (943 81 13 50), 2, 16 eta 28an. Beristain farmazia (943 81 19 49), 12, 17, 18 eta 29an. Eta Etxebeste (943 81 59 74) maiatzaren 13 eta 30ean.

**LUBA**

- AHOLKULARITZA FISKALA,  
LABORALA, KONTABLEA  
- ASEGURUOK  
- FINKEN ADMINISTRAZIOA

Enparan kalea, 30  
Tel.: 943 15 75 25 Fax.: 943 15 72 75  
e-mail: luba.ase@euskalnet.net

**AMALUP**  
lorazaintza

- Lorategien proiektuak
- Zuhaisken kimaketa
- Lorategi eta zelaien mantenua
- Belar landaketa eta tepe egur, harri edo txilar jartzea

943-025319 (Azkoitia)  
679106753 (mugikorra)

**COEG**

**HORTZ KLINIKA**  
Antonio Rafaniello

- Odontologi orokorra
- Odontologi estetikoa
- Aho zirujia
- Ezarpen osoak
- Protesi mugikorraren aldatzea
- Pieza gabekoa pieza finkora aldatzea

Enparan 8 - 1 Tel.: 81 67 36

**KIRURI**

**JATETXEA**

Loiola hiribidea, 24  
**LOIOLA - AZPEITIA**  
Tlfnoa.: 943 81 56 08  
Faxa.: 943 15 03 62





MAJE LARRAÑAGA

**AZPEITIARRAK ANDALUZIAKO MENDIETAN.** Aste Santutako oporraldian 36 azpeitiar inguru Lagun Onak Mendi Bazkunarekin Andaluziako (Espainia) mendietan izan dira, Sierra Nevada. Hiru hirumilako mendi egin dituzte azpeitiar mendizaleek: Mulhacén (3.479 metro), Loma Pelada (3.185 metro) eta La Veleta (3.396 metro).



**UROLA IKASTOLA**  
AZKOITIA - AZPEITIA BHI

- DBH
- BATXILERGOAK
- HEZIKETA ZIKLOAK

AZKOITIAN ALTAMIRAUZOAN ETA AZPEITIAN PERDILLEGIN:

- **Erdi Mailako Heziketa Zikloak**
  - Merkataritza
  - Arotzerien eta altzarien fabrikazio industrialia
  - Mekanika
- **Goi Mailako Heziketa Zikloak**
  - Administrazio eta finantzak
  - Zur eta altzari produkzioa
  - Mekanizazio bidezko produkzioa
  - Informatika sistemen administrazioa
- **Batxilergoak**

● **AURREMATRIKULA**  
EPEALDI ARRUNTA

**Batxilergoak**  
Maiatzaren 2tik 9ra (biak barne)  
**Erdi eta Goi Mailako H. Zikloak**  
Ekainaren 2tik 11ra (biak barne)

● **MATRIKULAZIOA**  
Ekainaren 30etik uztailaren 4ra  
(biak barne)  
EPEALDI BEREZIA

**Goi Mailako Heziketa Zikloak**  
Uztailaren 24tik 28ra (biak barne)

**KALITATEA ZURE ZERBITZURA**

Altamira Anzua z/g  
20720 AZKOITIA (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 85 21 74 Fax.: 943 85 28 67  
E-mail: azkoitia@uroloa.org

Perdillegi, 3  
20730 AZPEITIA (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 15 37 70 Fax.: 943 81 66 20  
E-mail: azpeitia@uroloa.org



www.uroloa.org



**AZPEITIKO IKASTOLA**  
**KARMELO ETXEGARAI**


HAUR HEZKUNTZA-LEHEN HEZKUNTZA

**KALITATEZKO EUSKAL HEZKUNTZA**

Euskal Herria, 50  
Tel.: 943 812697 - Fax.: 943 150830  
E-mail: keikastola@jet.es

20730 AZPEITIA  
(Gipuzkoa)





Kultura desberdinak ez ezik, egoera zail asko ere ezagutu ditu Joseba Iriondok Iraken, Pakistanen eta Afganistanen./JOSEBA IRIONDO

Ia bi hilabete egin ditu Bagdad hiriburuan Joseba Iriondo kazetari azpeitiarrak, ETBrentzat lanean, AEBen erasoetatik gertu

# IRAKEKO INJUSTIZIA, BERTATIK BERTARA

Iban Arrégi

**B**anuen itsasoa ikusteko gogoa”, esan digu azpeitiar hizkera garbian Joseba Iriondok, 1969an Azpeitiko Sanjuandegi auzoan jaio eta 12 urte zituenetik *zarauztartua* dugun kazetari ezagunak. Zarauzko hondartzan bertan jarri dugu hitzordua, eta han elkartu gara, itsasoa parez pare dugula. Burua oraindik Bagdaden (Irak) dauka, nabarmena da. “Zentratu gabe” dago, oraindik denbora gutxitxo delako Bagdaden bizitakoa eta ezagututakoa, han ikusitakoa eta ikasitakoa ahazteko.

Ameriketako Estatu Batuek (AEB) Iraki egin dioten erasotik gertu izan da Joseba, beste hainbat kazetari, brigadista eta irakiarrekin batera, arriskutik gertu. Ia bi hilabete egin ditu Bagdaden —otsailaren 23an joan zen, eta apirilaren 13an itzuli—, Euskal Telebistarentzat lanean, eta “egin-dako lanaren emaitzak” betetzen duela esan digu Josebak, “oso-oso lan garrantzitsua delako halako lekuetan kazetariok egin dezakeguna”. 1991ko Golkoko Gerran eman ez ziren irudiak eman dituzte Europako eta mundu osoko telebista kateek —ospitaletako irudiak, erasoen irudiak, gertuko testigantzak...—, AEBetako

telebista kateek orain ere eman ez dituzten irudiak. *Begidun gerra* izan dela diote adituek, inoiz baino begi gehiagok segitu dutelako AEBen erasoak. “Horregatik da garrantzitsua gu kazetariok han egotea, hangoari buruz informatzea. Badakigu jendearengan eragin handia daukan informazioa bildu dugula, eta hori izugarria da kazetari batentzat”. Josebak badaki, bestalde, bera bezalako kazetarien lana “deserosoa” izan dela AEBentzat, Aznarrentzat eta beste hainbatentzat, “eta handik alde egiteko presioak ere jaso genituen, kazetariontzat arriskutsua izan zitekeela eta abar esanez”.



**IRAKIARREN ARTEAN** . Brigadistekin joan zen Joseba Bagdadera, eta horrek lana erraztu egin diola dio. "Haiek ez zituen etsai moduan ikusten Irakeko erregimenak, eta kazetariok bai, neurri batean. Horregatik, brigadistei esker, haien joan-etorriari segituz, bestela ezagutu ere egingo ez genituen leku eta egoerak ezagutu ditugu". Irakiarra "jende atsegina" dela dio: "musulmanengan ohikoa denez, beti laguntzeko prest dagoen horietakoa". Alde horretatik, beraz, eroso sentitu dira, hala dio Josebak, arrisku berezirik ez dutela sentitu, "denak armaz josita zeuden arren". Azam izeneko taxi-gidariarekin mugitu izan dira Bagdaden batetik bestera, eta Irakeko Atzerri Ministerioko funtzionari bat ere gainean izan dute beti, "zer irudi hartzen genituen zaintzen" —kazetari bakoitzak *zaindari* edo *anakleto* bana zuen—. Hain justu, ezin zutelako nahi adina irudi hartu, ezta nahiko luketen hura ere beti: Irakeko soldaduak, koartelak, kale nagusiak, zubiak... Erabat debekatua zuten hori dena grabatzea, eta horretaz arduratzen ziren *anakletoak*. "Gurea ez zen, hala ere, gogorregia".

**BELDURRIK EZ, BAINA...** "Beldurrik ez" duela pasatu dio Josebak, "ezin zarelako horrelakoetan pentsatzen hasi", baina ten-

“Oso-oso lan garrantzitsua da Irak bezalako lekuetan kazetariok egin dezakeguna”

“Jende atsegina da irakiarra, musulmanengan ohikoa denez, beti laguntzeko prest dagoenetakoa”

**Joseba Iriondo**  
(kazetaria)

tsioa izugarria izan dela onartzen du: "Lehenengo egunetan aluzinatuta zaude, seko harrিতта. Hasieran hoteletik irten ere ez ginen egiten, baina gero ohitu-edo egiten zara, eta hori da txarrena, halako egoerara ohitzea. Bonbardaketan ari ziren nonnahi eta noiznahi, eta zu hor zenbiltzan, batetik bestera, *helburu militarrengandik* ahalik eta urrunen".

Baina hori ere ez nahikoa, nonbait, arriskutik urrun ibiltzeko. AEBen erasoak iraun duen bitartean 14 kazetari hil dira —eta hainbat eta hainbat zibil, nola ez—. Eta AEBek Palestina izeneko hotelera jaurti zuten lehergailuarenak marka guztiak hau-

tsi ditu, Josebaren ustez: "Ordurarte sakratua eta ukiezina zena, kazetariak egon ohi diren hotela hain justu, bonbardatu egin zuten. Izugarria izan zen". Bonbardaketa horretan Josebaren lagun bat hil zen, Tele 5 telebista kateko kamerari Jose Couso, hain justu. Beldurrik ez, beraz, baina desgrazia bat baino gehiago bai pasatu behar izan dituela Josebak. "Tentsio handia" bizi izan du, beraz, Bagaden pasatu dituen 51 egunetan, "momentu txarrak" ere pasatu ditu, lo egin gabeko gauak ere bai, "baina merezi izan du, inolako zalantzarik gabe".

AEBen erasoak *bukatu* da, kazetari eta brigadista gehienak itzuli dira euren herrialdeetara, Joseba bera ere bai; baina han, Iraken, "gizarte mikaztu bat" gelditu dela dio Josebak, "dena suntsituta dagoen gizartea, AEBen armadari eta agintariei zilegitasunik ematen ez dion gizarte bat". Horixe dauka buruan orain Josebak, Zarauzko hondartzan, itsasoa parez-pare duela Uztarriarekin hizketan ari den bitartean; eta badaki berriro ere hara itzultzeko aukera izango duela —Afganistanen lau aldiz izan zen—, sikiera ETBk kazetari bat hara bidaliko duela badaki. "Ni baino jende prestatuagoa badago, eta baliteke beste norbait bidaltzea, baina ni behintzat berriro joateko prest nago". ●

## ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOA



J.M. Iparragirre B.H.I.  
Santa Barbara Bidea z/g  
Urretxu 20700  
Tel./Faxa: 943-721413/721403  
jmiparragirre@edunet.es

## Erizain laguntzailea

Osasun familia. A-D ereduetan

### TITULAZIOA

- ▶ Erizaintzako laguntzaile-teknikaria

### IRAUPENA

- ▶ 1.400 ordu (ikasturte bat eta erdi), lantegietan egiten den prestakuntza barne (400 ordu)

### LANBIDE ETORKIZUNAK

- ▶ Ospitaleko erizain laguntzailea
- ▶ Lehen artapenetako laguntzailea
- ▶ Kontsulta pribatuetan
- ▶ Zaharren egoitzetan
- ▶ Hortz-kliniketan laguntzailea
- ▶ Gaixoen zaintza

### IZENA EMATEA

- ▶ Ekainaren 2tik 11ra, biak barne

**Oharra:** ikasleen garraiorako dirulaguntza aurreikusten da



# ELKARTASUNAREN ARIKETA: 1+1=2

Urteroko euskal presoen aldeko elkartasun eguna herriko hainbat talde eta banakoren lanaren emaitza da. Maiatzaren 10ean izango da aurten

## Herria Uranga

**M**aiatzaren 10ean izango da, *Euskal Presoak Herrira!* lemapean, Elkartasun Eguna. Egun osoko egitaraua osatu da aurten ere. Egunaren antolaketan lanean hainbat talde eta herritar aritu ohi dira aurreko egunetan. Tartean, nola ez, urte osoan zehar euskal presoek alde lanean aritzen direnak, hala nola, Etxerat, Azpeitiko Amnistiaren Aldeko Mugimendua eta presoek senideak eta lagunak. Baina urtean

zehar bestelako ekitaldi eta alorretan lanean aritzen diren zenbait taldek eta herritarrek ere parte hartu ohi dute egun honen antolaketan, hala nola, kirolariek, Ikasberri Kirol Elkarteak, herriko zenbait rock taldek, bertsolariek, begiraleek, sukaldari lanetan aritzen direnek eta abar. Aurtengo elkartasun irudiak adierazi bezala, elkartasuna "gehituz" egiten da, antolatzaileren arabera; hau da, 1+1=2. Orain arte antolatutako elkartasun egunetan partehartzetza handia izan da, antolaketan nahiz ekitaldietan, "eta herrita-

ren gehitze horrek indartzen du presoekiko elkartasuna ere".

**DISKOA.** Elkartasun Egunari begira, herriko bost rock taldek kantak egin eta disko batean grabatu dituzte, eurek ondoen dakitena eginez. Kanten hitzak egun honi begira egindakoak dira, gainera. Disko hau egiten denbora dezente eman dute taldeek, baina eguneari bertarako prest izango da. "Bost talde aritu gara kantak grabatzen: *Nazkau ez, Eziñean, 12 Tribu* eta *Segabathor* talde azpeitiarrak eta *SPYNY* zumaiarra. Gainera CD-Rom formatoan aterako da, irudiak ere izango baititu jasota", dio Josu Zubizarreta musikariak eta diska grabaketa lanean aritu denak. Sei eurotan jarriko da salgai diskoa, eta maiatzaren 10ean bertan herriko plazan jarriko diren postuetan behintzat erosi ahalko da. ●



luz egin zen aurreneko aldiz Elkartasun Krosa. Aurten ere egingo da, maiatzaren 10eko Elkartasun Egunean.

## EGITARAUA

### MAIATZAK 10 (larunbata)

#### ● ELKARTASUN KROSA.

● **11:00:** sei kilometro eta izen-ematea sei eurokoa izango da. Izena aurrez tabernatan eta eguneari bertan plazan eman ahal izango da. Plazan bertan hasi eta bukatuko da.

● **Hamaiketakoa eta sari banaketa:** lasterketako parte hartzaile guztientzat hamaiketakoa eta sari banaketa. Gero, argazki erraldoia aterako da.

#### ● HERRI KIROLAK, BERTSOLARIAK ETA TRIKITILARIAK.

● **12:30:** Herri kirolen ikuskizuna, bertsolarien eta trikitilarien saioa izango dira plazan.

#### ● HERRI BAZKARIA.

● **14:00:** azoka plazan.

#### ● MATERIAL SALMENTA.

● **Goiz osoan:** plazan material salmenta, sinadura bilketak, presoek egindako lanen erakusketak, gutun idazketak eta abar izango dira.

#### ● GAZTETXOEN GUNEA.

● **15:30:** Olazko Amaren Plazan gaztelu puzgariak, aurpegi margoketa, jolasak... Begiraleak egongo dira bertan.

#### ● BURUHANDIAK.

● **18:00:** Olazko Amaren Plazan.


#### ● MANIFESTAZIOA.

● **19:00:** manifestazio isila, *Elkartasunez, Euskal Presoak Herrira!* lelopean. Ondoren, ekitaldia.

#### ● KONTZERTUA.

● **23:00:** herriko talde bat eta Reincidentes, plazan.





**abean**

azneitiko bigune eztertiar abertzalea

**Maiatzaren 25ean balio handiko  
zerbait egitera goaz**



## HEZIKETA ZIKLOAK

### ✓ ERDI MAILAKOAK

- Barazki, haragi eta arrain kontserbagintza, 1.400 ordu
- Ekipo eta Instalazio Elektronikoak, 2.000 ordu

### ✓ GOI MAILA KOAK

- Administrazio eta Finantzak, 2.000 ordu.
- Elikagaien Industriak, 2.000 ordu.
- Erregulazio eta kontrol sistema automatikoak, 2.000 ordu

Eskabideak eta dokumentazioa aurkezteko epea: maiatzak 5etik 9ra, biak barne.  
SARBIDE PROBAREKIN

Eskabideak eta dokumentazioa aurkezteko epea: ekainaren 2tik 11ra, biak barne.  
SARBIDE ZUZENA

Matrikula egiteko aldi arrunta: ekainaren 30etik uztailaren 4ra, biak barne.

Matrikula egiteko aparteko aldia: uztailaren 24tik 28ra, biak barne.

## BATXILERGOAK

### ✓ TEKNOLOGIA

### ✓ GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK

### ✓ NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK

Eskabideak eta dokumentazioa aurkezteko epea: maiatzaren 5etik 9ra, biak barne.

Matrikulazioa egiteko aldi arrunta: ekainaren 30etik uztailaren 4ra, biak barne.

Aita - Mari Auzategia, z/g. 20750 ZUMAIA (Gipuzkoa) / Telak. 943 86 08 09 - 943 86 23 20 Faxa: 943 86 08 10 / e-mail: zuminst@euskalnet.net



### INFORMAZIOA:

## Makina Erremintaren Institutua

Azkue Auzoa, 1 - 20870 Elgoibar  
Telf. 943 74 82 65 - 74 41 32  
Faxa. 943 74 41 53  
email: amaia@fmh.es  
www.imh.es



## HEZIKETA ZIKLOAK

### GOI MAILA (A eta D ereduak)

- Proiektu Mekanikoen Garapena
- Mekanizazio Bidezko Produkzioa
- Industri Ekipoen Mantenimendua

### ERDI MAILA (A eta D ereduak)

- Mekanizazioa

### ATE IREKIAK :

maiatzaren 22an eta ekainaren 5ean,  
arratsaldeko 19etan



egun enpresak langile tekniko kualifikatuen beharrean aurkitzen dira



luzena emateko epea: ekainaren 2tik 11ra, biak barne



# ZOZKETA, MAIATZEAN

Udal sustapeneko 75 etxebizitzaren eskaintzan herritar ugarik eman du izena Azpeitia Lantzenen, eta maiatzean egingo da etxebizitza horien aurreneko zozketa



Enparan kalean dagoeneko jarri dute udal sustapeneko etxeen inguruko iragarkia. / NEREA URANGA

Nerea Uranga

**U**dal sustapeneko etxebizitzak egiteko asmoaren berri eman zuen martxoan Udalak, Alkatezaren bidez. Udalak Azpeitia Lantzen S.A.ren bidez egingo ditu 75 etxebizitza, eta horietatik 50 alde zaharreen egingo dira, zaharrak bota eta berriak eraikiz. Baina Azpeitia Lantzenetik argi utzi da ez direla babes ofizialeko etxebizitzak, udal sustapenekoak baizik. Merkatuko etxebizitzaren salneurria baino baxuagoak izango badute ere, 150 mila euro edota 180 mila euro inguruan ibiliko dira.

**JENDEAREKIN EGON.** Azpeitian Lantzenen esanetan, udal sustapeneko etxebizitzetarako izena "jende askok" eman du. Maiatzean lehen zozketa egitea aurreikusi du. Baina aurretik izena eman dutenekin egon eta baldintzak betetzen dituzten "ziurtatuko" da. Plana bi urterako egin dute.

## Babeseko etxe kopuru urria

● **AZPEITIAN.** Herrian 1997az geroztik ez da babes ofizialeko etxebizitzarik egin. Azpeitian babes ofizialeko etxebizitza bakarrak Euskal Herria auzoan eraikitakoak dira. Eta azken udal sustapeneko etxebizitzak Damaso Azkue auzogunean egin ziren. Herrian hamabi urtean, 1990etik,

1.230 etxebizitza berri eraiki dira; gehienak 1992an: 272.

● **BESTE HERRIETAN.** Inguruko zenbait herritan babes ofizialeko hainbat etxebizitza eraiki eta zozketatu dira dagoeneko. Etxebidek Gipuzkoan 892 etxebizitza es-

leitzeko asmoa du. Azpeitian kokatutako etxebizitza bakar bat ere ez da sartzen kopuru horretan. Azkoitian iaz 60 etxebizitza zozketatu ziren. Bi logelako etxebizitzaren (65 metro karratu) salneurria 67 mila eurokoa da (trastelekua eta garajearekin 80 mila euro), eta hiru logelakoena (79 metro karratu) 83 mila eurokoa (trastelekua eta garajearekin 97 mila eurokoa). ●

uztarrria

943 15 03 58

Taberna bat  
alokatzen da  
Azpeitian

943 - 15 00 57

Irudiekin, Iraurgi bailararen zerbitzura

**KAITO TELEBISTA**

Grabatutako bideoen kopiak  
egiten dira



81 53 35





# HORMETAKO POETAK

**B**izitza honetan aurrera begiratzeko beharra guztiongan jaiotzen da une bat baino gehiagotan. Aurrera begiratzeko eta, nola ez, aurrera egin ahal izateko, distantzia beharrezkoa da, hala uste dut nik behintzat. Distantzia hori gure akatsen sorterrri bihurtu daiteke, edo gure baloreen erakustoki, hala nola, bata zein bestea nabaritu, atzeman edo ukitu, atzera begiratu ahal izango dugu, distantzia horretan utzitako aztarnak manipulatzera.

Oso garrantzitsua izaten da distantzia horrek markatzen digun espazioa ezagutzea. Pausoak ziur eman ahal izateko eta atzera ahal den gutxiena begiratzeko. Egutero sortzen dugu bide berri bat, aurrekoaren ia berdina dena, baina aldi berean desberdina eta hasieran zentzu guztiak erne mantentzen saiatzen gara, ondoren geure egingo ditugun ezaugarriak ikusi eta barneratzeko intentzioarekin. Bigarren aldiz zapaltzen dugunean bide horren edukia, segurtasuna handiagoa da, gozamina bezalaxe.

Hormetako poetak bide berrien sortzaile bezala ikus ditzakegu. Ez dira kirolari soilak, distantziarekin jolastu duten idazle mendizaleak direla esatea ez litzateke astakeria izango. Idazle bati distantzia orri zuriak markatzen dion bezala, eskalatzaille bati horma batek ezartzen dio aurrera begiratzeko arrazoiaren xarma. Hormetan bide berriak izkiriartzen dituzte, eskuen ziurtasunez eta hanken abileziak. Beraiek markatzen duten espazioa ez da desagertzen, hitzak bezala, eta hormetako arrailduretan lokartzen da.

Azpeitian eskalatzeko zaletasun handia dago, aurrera begiratzeko joera izaten duten gazte asko aurkitzen dira. Eguzkia noiz aterako zain, hormak berotu eta hormetako epeltasunak dastatzeko intentziotan ateratzen dira segurtasun neurri guztiak poltsan ditzutela. Zaratarik atera gabe aurrera egiten duenak ateratzen du zaratarik handiena, baina bukaeran, beren emaitzak azaleratu behar direnean eta bitartean inori trabarik egin gabe egiten dute aurrera. Baliteke hormetako poetek, beraien poesia ozen ez oihukatzea, baina beraien balentria gure belarrietara iristen da, agian haizeak ekarrita, nork daki.


Isilean egiten dute lana poeta hauek. Beraien pausoak ez dira entzuten, mendiak beretzako gordetzen ditu eta agian mendigoizalaren bati iritsiko zaizkio haizearen errezitaldi amaigabeak. Eskalatzailleak mendia behar du eta mendiak behar ditu hormetako poeta hauen esku eta hanken ferekak. Erlazio eder horretan errespetuak indar handia dauka, bata bestearekiko errespetua, begirune eta besarkada horretan, biharko egunaren baitan ez dira elkar engainatzen.

## HILEKO GALDERA.

**Azpeitian  
igande  
arratsaldeak  
ez al dira  
astelehen  
goizak bezain  
tristeak?**

Azpeitia ez da, guretzat behintzat, kostako herri bat, eta itsasoaren eta surflarien arteko erlazioa ez dugu hain sakonki ezagutzen. Baina Azpeitia mendiz josita dagoen herri bat da, luxuzko koadroak ikus ditzakegu egutero batera eta bestera begiratu. Denbora murriz batean nahi adina mendi buru zapaltzeko aukera daukagu eta horren ondorioz mendien gorputzean poetek haizearen abestiak ereiten dituzte. Erlazio mota hori gertuago sentitzen dugu.

Erlazio hori sakonago ezagutuz zerura begira jarri beharko ginateke, gure inguruak eskaintzen dizkigun distantziez gozatzen hasteko eta gure modura mendiaren gorputzean aurreneko hitzak idazten hasteko, oinekin bada ere. Azpeitian badago mendizaletasuna, eta hormetako poetek idatzitako bidearen irakurketan murgilduz siesta batzuk botatzea ez litzateke gaizki egongo, bitartean haizearen karizia eta berdearen usain gozoa barneratuz.





**Uztarrria Kultur Koordinadora**

# Uztarrriak II. Kulturaldia abian jarri du, bere V. urtemuga bete duenean

**Uztarriaren datuak**

**Argitaratzailea:** Uztarrria Kultur Koordinadora  
**Egoitza:** Julian Elorza Hiribidea 4, 2.a ezkerria (Azpeitia).  
 Telefonoa eta faxa: 943 - 15 03 58  
**Posta elektronikoa:** uztarrria@topagunea.com

**Web orria:**  
[www.uztarrria.com](http://www.uztarrria.com)

**Posta kutxa:** 227, Azpeitia  
**Inprimategia:** Gertu  
**Tirada:** 1.900 ale  
**Lege gordailua:** SS-860/2000

**aldizkari honen laguntzaileak**



**AZPEITIKO UDALA**



**Gipuzkoako Foru Aldundia**



**EUSKO JAURLARITZA Kultura Saila**

Uztarrria Kultur Koordinadorak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizuna



**laz ere egin zen artisauen azoka. Ordukoa da argazkia.**

**II. KULTURALDIA**

- **MAIATZAK 9 (ostirala).**  
 ●22:00: *Letrak biluzten.* Menu erotikoa antzerki-poesia emanaldia, Azpeitiko eta kanpoko idazle gazteen eskutik. Oñatz tabernan.
- **EKAINAK 6 (ostirala).**  
 ●20:30: Bertso-afaria, Erriarrait Bertso Eskolako irakasle eta ikasleekin. Errezilgo Borondegijatetxean.
- **EKAINAK 7 (larunbata).**  
 ●18:00: Pain Ful taldearen kontzertua. Korrале tabernan.
- **EKAINAK 21 (larunbata).**  
 ●Egun osoan: Artisautza azoka. Tailerrak eta postuak. Plazan.

● **BOST URTE.** Bost urte bete dira jada herriko hainbat taldek eta eragilek Uztarrria Kultur Koordinadora sortu zutenetik (1998ko martxoaren 3an sortu zen Uztarrria). Orduetik hainbat lan eta aldarrikapen egin ditu, eta Azpeitiari zerbitzua eskaini dio, betiere herrigintzan, euskalgintzan eta kultur gintzan oinarrituta.

● **LAN UGARI ORAINDIK:** Bost urteotan egindakoa ontzat jotzen dugun arren, oraindik lan ugari dago egiteko, herriko kultur dinamika eta partehartzea ahul dagoelako oraindik, herriko kultur ekitaldiak antolatzeko ohiturarik ez dagoelako, azpeitiarrek herriak sortutako kultura kontsumitzeko ohitura handirik ez dutelako. Eta kezkatuta gaude, bost urte eta gero, oraindik, herriak lokal

aldetik oso eskas segitzen duelako, herriko taldeek ia non bildu ez dutelako, kultur ekitaldiak tabernetan egin beharrean daudelako...

● **KULTUR GUNE BATEN BEHARRA:** Azpeitia kultura aldetik herri bizia izatea nahi badugu, herritarrek kultura sortzea nahi badugu, azpeitiarrek herriko egindako kultura kontsumitzea nahi badugu, horretarako baldintzak sortu egin behar dira. Herriko taldeen eskura egongo den kultur gune bat behar da Azpeitian; kultur gintzan, euskalgintzan eta herrigintzan dabilzan taldeen bilgune izango dena; kultur espresiorako balioko duena; Azpeitia piztuko duena; erreferentzia izango dena. Uztarrria, Azpeitiaren alde halako pauso garrantzitsua emateko prest dago.

**653 bazkide gara jada**

## EGIN ZAITEZ BAZKIDE UZTARRIAN

Urtean 21 euro (aldizkaria, bi liburu, 'Literatuzta') / Bestela egin harpidedun (aldizkaria soilik; kontuarena ez beste guztia bete)

**IZEN-ABIZENAK:** \_\_\_\_\_

**HELBIDEA:** \_\_\_\_\_

**HERRIA:** \_\_\_\_\_

**KODE POSTALA:** \_\_\_\_\_

**TELEFONOA(K):** \_\_\_\_\_

**POSTA ELEKTRONIKOA:** \_\_\_\_\_

**KONTU KORRONTEKO ZENBAKIA (20 digitoak):** \_\_\_\_\_

Julian Elorza Hiribidea, 4, 2.a ezkerria • 227 posta kutxa • Telefonoa eta faxa: 15 03 58 • Posta elektronikoa: uztarrria@topagunea.com



Ez dira ohiko udal hauteskundeak izango. Batetik, Habea legez kanpo utzi dute. Bestetik, herriak alkate berria izango du 18 urte eta gero.

# ERASO JUDIZIALAK BALDINTZATU DUEN BOZKETA



udal hauteskundeak Azpeitian

**1979**

Errolda: 8.916 Abstentzioa: %35

ALDERDIA	BOTOAK	ZINEGOTZIAK
EAJ	3.297	11
EA (sortu gabe)	-	-
HB (ez parte hartu)	-	-
PSE	312	1
EE	1.169	4
Besterik	830	1 (EKA)

**1983**

Errolda: 9.493 Abstentzioa: %39

ALDERDIA	BOTOAK	ZINEGOTZIAK
EAJ	3.737	12
EA (sortugabe)	-	-
HB	683	2
PSE	446	1
EE	711	2

Enekoitz Esnaola

**D**emokrazia batean herritarrak aldi behin du bere agintariak aukeratzeko aukera eta eskubidea. Hego Euskal Herrian ez da halakorik gertatuko aurten, maiatzaren 25ean, mila lagunek ezingo dituztelako legez —Espainiako Auzitegi Gorenaren arabera; hilaren 8an hartuko du behin betiko erabakia— ezkertiar plataforma abertzaleak hautatu, ez udaletan, ez foru aldundietan edo Nafarroako Legebiltzarrean. Azpeitiko Udalean, esatera baterako; lege kanpo utzi dutelako Habea.

• **HEREN BAT.** Azpeitian aurkeztuko den alderdi edo plataforma euskal abertzale ezkertiar bakarra da Habea, eta orain dela lau urte



udal hauteskundeetan EH ezkerreko elkarte abertzalearen alde egin zuten azpeitiarrak %34 izan zirela oinarri hartuta, herriaren herenakezingo du, legez, orain aukera hori eduki. Espainiaren eraso judizialak erabat baldintzatu ditu, beraz, udal hauteskunde hauek.

● **BOTOA?** Habeak, hala ere, esan du

udal bozetara aurkeztu egingo dela, berari botoa ematerik izango dela. Uste dute ehunka boto lortuko dituztela, kasu horretan, balio legalik ez izan arren, "balio morala" izango dutela, eta ikusiko dela zinegotziak izateko adina boto lortzen dituen edo ez. Lortzen baditu, Udaletxean lan

egiteko "prest" azalduko da Habea, eta bertara ere joango da ekain erdi aldera udal korporazio berria osatzen den egunean.

● **HERRIKO ARGAZKIA.** Pilota, EAJren eta EAren teiltura botako du horrela Habeak, desobediencia zibilaren aldeko apustua egin dezaten nahi du, baina ikusi egin beharko da zer gertatzen den. Kontuak kontu, Habeak azkenean ordezkari-zarik ez baldin badu Udalean, eta pentsa EAJ-EA koalizioak hamabost zinegotzi dituela eta beste bi Espainiako alderdien ordezkarien artean banatzen dela, garbi dagoena da udal hori ez dela herriko borondatearen argazkia edo isla izango. Legezkoa izango da, baina legea eta justizia ez doaz beti bat.

● **ALKATE BERRIA.** Udal hauteskunde hauetako beste albiste garrantzitsua alkate aldaketa izango da. Jose Mari Bastidak (EAJ) hemezortzi urte egin ditu alkate bezala, 1985ean Imanol Elias ordezkatu zuenetik, eta orain haren alderdiak beste zerrendaburu bat aurkeztu du: Julian Eizmendi. Euskal Herrian alkatetzan denboraldirik handienetakoa egin duena izan da

Bastida, eta seguruenik alkate berria alderdi bertakoa izango den arren, horrek, nahitaez, aldaketa ekarriko du herrira.

● **ESTILOA.** Bastidak estilo pertsonalizatuarekin kudeatu du Azpeitiko Udala, eta Eizmendik, Uztariari emandako elkarrizketan azpimarratu duenez, "taldean" egin nahi du lana. Hala, hiru areatan banatuko du Udala: bata ekonomiarekin zer ikusia duena; bestea zerbitzu orokorrekin zerikusia duena, eta hirugarrena gazteria, kultura, hezkuntza, euskara, kirola, festak... hartuko dituen. Bakoitzak edukiko lituzke bere arduradunak, eta Eizmendik koordinatuko luke dena. Eta herriarekin "talante irekia" edukiko duela esan du.

● **ESPAINOL ORDEZKARIAK.** Habearen botoek baliorik gabe uzten baldin badituzte, oso-oso litekeena da Espainiako alderdien ordezkariak pare bat zinegotzi lortzea Azpeitiko Udalera. PSE-EEK, IU-EBk eta PPK zerrendak aurkeztu dituzte. Ezohikoa kasua litzateke. Izan ere, 1983-1987 legegintzalditik Espainiako alderdien ordezkariak ez dute aukerik izan Udaletxean —orduan PSEk bat izan zuen, aurreko legealdian bezala—. Bestetik, Aralar ez da herrian taldea aurkezteko gai izan.



### ASKATU?

Habeak esan du bere botoa ematerik izango dela hilaren 25ean.

Beraz, azpeitiar bakoitzak ikusiko du Espainiatik Habeari jarri dioten giltzarrapoa (kandadua) askatu edo ez.



#### 1987

Errolda: 10.010 Abstentzia: %28

ALDERDIA	BOTOAK	ZINEGOTZIAK
EAJ	2.940	8
EA	2.466	6
HB	928	2
PSE	274	0
EE	411	1

#### 1991

Errolda: 10.258 Abstentzia: %33

ALDERDIA	BOTOAK	ZINEGOTZIAK
EAJ	3.305	9
EA	1.770	5
HB	1.038	3
PSE	226	0
EE	326	0

#### 1995

Errolda: 10.763 Abstentzia: %31

ALDERDIA	BOTOAK	ZINEGOTZIAK
EAJ	3.030	8
EA	2.101	5
HB	1.459	4
PSE-EE	225	0
PP	287	0
IU-EB	89	0

#### 1999

Errolda: 11.299 Abstentzia: %31

ALDERDIA	BOTOAK	ZINEGOTZIAK
EAJ	3.141	7
EA	1.744	4
EH	2.923	6
PSE-EE	235	0
PP	351	0



## Julian Eizmendi

EAJ-EA koalizioko  
hautagaia alkatetzarako

# ERRONKA HANDIA DAUKA AURREAN



Eizmendi aterako ote da alkate? Hala dirudi. Aurre egin beharko dio Bastida ordezkatzeari. Erronka du

Enekoitz Esnaola

# “Habea gabe, emaitzek ez dute herria islatuko, baina zilegitasuna edukiko dugu”

**P**rogramako ardatzak zehazteko bilerak, aurkezpena, elkarrizketa, argazki ofizialak... Horietako gauza asko ez ditu berriak Julian Eizmendik, lehen ere aurkeztuta dagoelako —EETik— baina erantzukizuna du bestelakoa: orain alkate izateko aukera handia du. Eta hori, desberdina da. “Hau dena berria da niretzat”, dio.

● **Animatuta?**

Animatuta, eta ilusionatuta.

● **Noiz aipatu zizuen aurkezteko?**

Joan den urteko urri bukaera aldera.

● **Zeuren ordurako afiliatuta al zeunden?**

Ez, ni gero afiliatu nintzen. Baina ni azken urteotan ildo honetan nengoen, eta espreski adierazi izan dut, batik bat su-etena apurtu zenetik aurrera aktiboki koalizioaren inguruan aritu naizelako. Baina beti eduki diot halako erreparoa afiliatzeari, batik bat Diputazioan betetzen dudak karguagatik. Udal Harremanetarako Unitate Teknikoko burua naiz, eta lanean objetiboa eta profesionala kontsideratzen naiz. Zerrendaburu izendatzean erabaki nuen afiliatzea, nolabait nire konpromisoa indartzeko.

● **Lehen ere aurkeztu izan zara udal hauteskunde zerrendatan: 1987an eta 1991n.**

Bai.

● **Euzkadiko Ezkerran. Orain EAJn. Bi alderdi desberdin dira...**

Txikitatik eduki dut bokazio politikoa. Zortzi urte nituela gure etxean Radio Paris entzuten zen. Hamabi urte nituela Burgosko prozesuaren jarraipena egiten nuen liburutegiko erakusleihen baten bitartez. Unibertsitaria nintzela afiliatu nintzen EEn...

● **...eta EAJrekin kritikoa izango zinen politika sozialean eta.**

Bere garaian EE kritikoa zen EAJrekiko arlo horietan. Orduan geuk geure programak

geneuzkan eta EAJk bereak. Nik uste dut orain EAJ politika sozial aurrerakoia egiten ari dela.

● **Baina ezker ikuspegitik, nolako kontsideratzen duzu EAJ?**

Esan bezala, EAJ politika sozial aurrerakoia egiten ari da Eusko Gobernuan eta. Nik dauzkadan printzipioak ere hor daude, akzio publikoak berdintasun eta elkartasun irizpideetan oinarritutakoa izan behar duela uste dut, eta horretarako gaude EAJn, hori gauzatzeko.

● **Beraz, ez al duzu uste EAJ eskubiko alderdia denik?**

Eskubia eta ezker kontzeptuak ez dira gaur egun nire unibertsitate garaioak bezala. Ezker eta eskubikoa kontzeptuak pixka bat difuminatu egin dira. Gobernatzeko erantzukizunak hartzen ditugunean, politika aurrerakoia edo programa aurrerakoia aurrera eramateko azaldu behar dugu, hori gauzatzeko, eta nik uste dut EAJk hori egiten duela. Nik irizpideak betikoak ditut: sozialak. Eta koalizioan egin dugun programa aurrerakoia da.

● **Udal barruko funtzionamendua nolako den ezagutzeko, xehetasun gehiagorekin ezagutzeko lanik egin al duzu azkenaldi honetan? Gaur egun Azpeitiko Udalean dagoen jendearekin egon al zara?**

Zinegotziekin programa funtzionamendua behin baino gehiagotan bildu naiz. Bilera dezente eduki ditut. Gainera, lanbideagatik ezagutzen dut udalen funtzionamendua.

● **Teknikoki, izan daiteke. Bestela, alkate batek izan behar duen talanteari dagokionez eta, zer eskaintzeko, zer egiteko asmoa daukazu?**

Talante irekiarekin egingo diegu aurre gauzei, elkarrizketaren bidez. Taldeak argi du.





NEREA URANGA

● **Ateak zabalik herritar guztiek?**

Herri osoari zerbitzeko gaude.

● **Denek hori esaten dute, baina bete...**

Saiatuko gara betetzen.

● **Jose Mari Bastidaren lan estiloa nahikoa pertsonala zen. Zurea nolakoa litzateke?**

Ekipoan lana egiteko asmoa dugu. Udala hiru areatan banatuko dugu: bat ekonomia-ekin zerikusia duena (hirigintza, ingurumena, industria, merkataritza, nekazaritza eta turismoa), bestea zerbitzu orokorrak (hoga-suna, barne antolakuntza, giza baliabideak, gizarte baliabideak), eta hirugarrena gazteria, kultura, hezkuntza, euskara, kirola, festak... Hiru-lau zinegotzik area bana hartuko lukete eta nik koordinatu egin beharko nituzke. Baina ekipoan lan eginda.

**di-da batien**

● **Zure kiniela, Habeak ahal balu azkenean?**

EAJ-EAk 12, Habeak 5.

● **Politikari bat?**

Juan Jose Ibarretxe.

● **Euskal Herria ez den beste herri bat?**

Nire hirugarren semea Hondurasen jaioa da eta hori etorri zait burura galdera entzutean.

● **Balore edo irizpide bat?**

Elkartasuna.

● **Hazparnerekin anaituta dago Azpeitia. Zein da hango alkatea?**

Ez dakit zein den.

● **Euskal Herri independentea baina erdara duena edo Euskal Herri ez independentea baina euskara duena?**

Dikotomi horrek ez dauka zentzurik, lehen hipotesia ezinezkoa litzatekeelako.

Ikusten al zara hemezortzi urtean alkate, Bastida bezala?

● **Ikusten al zara hemezortzi urtean alkate, Bastida bezala?**

Herriak konfiantza eman izan dio hari, eta indartsu egon da. Baina ezohiko kasua da horrenbeste urtean alkate egotea. Nik uste logikoena zortzi urtean egotea dela.

● **Nolako lana egin du Bastidak?**

Puntako herria utzi du, bizi kalitate handikoa. Herriko historiara pasatuko den alkatea da.

Hortaz, erronka handia dut.

● **Hautagai izango zarela emandako aurkezpenean behin eta berriro aipatu zenuen bizi kalitatea. Zer da hori?**

Uste dut estatistikoki 60 bat parametro erabiltzen dituztela bizi kalitatea neurtzeko: etxebizitzak lortzeko ahalmena, teknologia berriak, aberastasuna, *renta per capita*, elektrogailuak, autoak, aberastasuna neurtzen duten parametroak, erosteko ahalmena, aisialdia, ikasketa maila, hezkuntza maila, ingurumena... Denak kontuan hartu eta horrek adierazten du azpeitiarrok dugun bizi kalitatea handia dela.



“ Nik irizpideak betikoak ditut: sozialak. Eta EAJK politika sozial aurrerakoia egiten duela uste dut”

“ Talante irekiarekin egingo diegu aurre gauzei, elkarrizketaren bidez. Taldeak argi du”

“ Koalizioak ahal den boto gehien lor ditzan saiatuko gara, Habea aurkeztu edo ez”



► ● **Etxebizitza aipatu duzu. Arazo latzak dau-  
de herrian. Beraz, bizi kalitatea...**

Etxebizitza da gure programako puntu nagusia. Programa egiteko garaian buelta gehien eman diogun kontua izan da. Azken batean, prezio tasatuetan, babes ofiziale-  
tan edo sozialetan gutxienez 200 etxebizitza egiteko helburua daukagu jarrita herri babespeko politikaren bitartez.

● **200 etxebizitza horiek zer lirateke, etxebizitza berriak, lur berrietan eginak edo gaur egun hutsik dauden eraikinetan?**

Azpeitian nolabaiteko lur eskasia dago. Herri babespekoak egingo ditugu egun erresidenczialak diren tokietan, hutsuneak dauden tokiak aprobetxatu behar ditugu. Noski, lurzoru berriak ere eskainiko beharko dira.

● **Hutsik dauden etxebizitzetzi buruz, zer?**

Eusko Jaurlaritzak Etxebide programa nahiko aurreratuta dauka. Hau da, pentsa jabeak etxea alokairuan ateratzen duela, 60.000 pezetan edo, Jaurlaritzak jabeari diru hori emango dio, baina alokairuaren onuradunari merkeago. Azpeitiak hori aurrera eramatea erabakiko balu, etxebizitza hutsen poltsa egin beharko litzateke gero alokairuan ateratzeko.

● **Hori Azpeitian zerbait berria litzateke.**

Arazo hori ez da gure herrikoa bakarrik.

● **Etxeak egin eta egin ari dira herrian. Eta aparkalekuak? Gabezia handia dago.**

Batetik, Azpeitian *autoaren kultoa* dago, eta mugikortasun jasangarritasunaren printzipioari helduta, saiatuko gara herrian bidegorriak sustatzen, gune industrialetara garraioa bultzatzen... Aparkalekuen kontuari ere buelta asko eman dizkiogu, eta alde zaharra, Betharramistak... aztertuko ditugu lurpekoren bat egiteko zein den egokiena ikusteko.

● **Saihesbidea, “ahal den azkarren”?**

Bai. Baita N-1era errazago iristeko neurriak ere (Tolosatik, Mandubitik, Zumarragatik...). Hauek ez dira Udalaren konpententziak, baina guk estrategikoki bultzatu egingo ditugu.

● **Eta Udalbiltza? Bertako kide dira EAJ eta EA, baina alderdiotako herriko zinegotziek ez dute askorik parte hartu.**

Udalbiltzarena ideia ona izan zen. Su-eten garaian sortu zen. Gero bitan banatu zen. Guk gure alderdiko zuzendaritzaren aginduak segituko ditugu.

● **Baina Udalbiltza udalek osatutako erakundea da eta ez alderdiek osatutakoa.**

Bai, baina aginduak politikoak dira.

● **1999an EHk botoen %34 lortu zuen Azpeitian. Orain herriko ezkerreko platatorma abertzalea —Habea— legez kanpo utzi dute. Nola ikusten duzu hori?**

EAJ eta EA Alderdi Legearen aurka daude, Batasunaren ilegalizazioaren kontra ere bai, eta Habearen sensibilitateak eta ikus-

pegiak udal ordezkarietan isla izatea nahi dugu.

● **PPko eta PSE-EEko ordezkariak mehatxatuta daude eta Eusko Jaurlaritzak (ere) bizkarzainak jartzen dizkie. Ezker abertzaleko ordezkariak eta botoemaileek ere mugatua dute askatasuna, Habearen ilegalizazioa dela eta. Zer egin beharko lukete EAJK eta EAK horren aurrean?**

Gu, gure aldetik, koalizioak ahal den boto gehien lor ditzan saiatuko gara, Habea aurkeztu edo ez. Garai erabakigarrian gaude, garai estrategikoan, irailean aurkeztuko duelako Ibarretxek bere plana, ETAK eta PPK eta PSOEek blokeatuta daukaten egoera politikoa desblokeatzeko, horrekiko aterabide bat aurkeztu behar dugu, aurrera jarraitu behar dugu.

● **Baina ezker abertzaleak ezin badu legez aurkeztu? Ez al dira bi kontu desberdin?**

Guri botoek emango digute zilegitasuna. Gu botoengatik egongo ginatete udal gobernuan. Horregatik saiatuko gara ahal den boto gehien lortzen, aurrera egiteko.

● **Ez al da hori jokabide partidista? Alderdi batzuek askatasuna mugatua dutela eta, ba al daukate zilegitasunik hauteskunde hauek?**


Zilegitasuna, berriro diot, botoek emango digute. Eta berriro diot: Habeak ere egon beharko luke hauteskundeetan, ez da gure errua hari aurkeztzen ez uztea. PPrena eta PSE-EErena ere larria da, askatasun defizit handia dutelako, zerrendan irtenez gero bizkarzainarekin ibiliko direlako, eta hori latza da. Baina, era berean, esaten dut ETAK ez duela baldintzatuko prozesu politikorik. Hemen guri urrats batzuk egiteko eskatzen zaigu eta eskatzen digunak igual ez ditu hartzen, gure ustez berari dagozkionak. Guk beti esan duguna da indarkeriarekin lehenbailehen bukatu behar dela, eta garaia badela herrigintzarako eta politikagintzarako.

● **Habeak udal ordezkariak ez badu, demagun PNV-EAK hamabost zinegotzi lortzen dituela, eta PP eta PSOEek bana. Hori al litzateke Azpeitiko argazkia?**

Ez, Habearen ordezkari faltako litzatekeelako, eta Habea gabe, emaitzek ez dute herria islatuko. Hori garbi. Baina guri botoek emango digute zilegitasuna, erantzukizunak hartzeko, Azpeitia aurrera eramateko eta Euskal Herriko egoera larria desblokeatzeko.



# aldaketarain



Ezinbestekoak gara

[www.aubilgunea.org-gipuzkoa@aubilgunea.org](http://www.aubilgunea.org-gipuzkoa@aubilgunea.org)





## Miren Odriozola

Habea plataformako  
hautagaia alkatetzarako

### AURPEGI PUBLIKOA LEGETIK KANPO?



Hitzaldiak eman  
ditu, prentsan  
azaldu da,  
zinegotzia da...  
eta legez kanpo  
utzi dute. Zein da  
froga?

Enekoitz Esnaola

“Hauteskundeetan  
izango gara gu,  
eta ea EAJk eta  
EAk errespetatzen  
dituzten emaitzak”





**N**ekatuta eta haserre dago Miren Odriozola elkarrizketaren unean. Nekatuta, duela egun gutxi utzi dutelako legez kanpo Udalbiltza, eta bera bertako batzorde eragileko kide denez, jo eta ke ibili da azkeneko orduetan, egoerari aurre egin nahian. Eta haserre, horretaz ez ezik, ordu eskas batzuk direlako Espainiako Estatuak Habea ere legez kanpo utzi duela, eta bera denez Azpeitiko zerrendaburua... Igandea da, eta atsedena nahi du. "Jai politikoa hartu dut", dio. Ez, bestela, ordea, astean zehar ez bezala lanean ari baita baserrian. Uztarriari egin dio tarterik.

● **Espainiako Estatuak legez kanpo jo zaituzte.**

Gu jarri gaitu orain. Eta orain egun batzuk Udalbiltza ere bai. Eta lehen beste batzuk: Batasuna, EH, HB, Segi, Jarrai, Amnistia-ren Alde Batzordeak... *Egin eta Egunkaria*

ere itxi zituzten. Ezker abertzalearen kontra ari dira, deuseztu egin nahi dute, baina aurretik aipatu ditudan erakunde edo egunkari batzuk ikusita, garbi dago Euskal Herriaren kontra ari direla azken batean. Astakeria astakeriaren gainetik, gezur potoloak gezur potoloen gainetik.

● **Beltza egoera...**

Oso. Euskaldun sentitzen den eta euskaldun bezala bizitzea erabaki duen edonoren kontra ari dira. Demokrazia falta izugarria dago.

● **Hauteskundeetan izango zaretela esan duzue.**

Hor egoteko eskubidea dugulako. Eta egongo gara. Gure boto paperekin.

● **Nola, ordea?**

Ez digute kanpaina egiten utziko, baina gu herriko talde, sindikatu, elkarte, alderdi... gutziekin egongo gara, gure programa

azalduko eta kaleratuko dugu, geure botoak helaraziko dizkiegu haiei eta herritar guztiei, gu bozkatzeko aukera egongo delako. Hori ziur.

● **Eta gero?**

Gero, abertzaleak direla esaten duten horiek izango dute erantzunkizuna. Emaitza batzuk egongo dira hilaren 25 gauean, Habeak horrenbeste boto lortuko ditu, horrenbesteko horren arabera zinegotzi kopuru bat izango du, eta ikusiko dugu EAJk eta EAK hori errespetatuko duten.

● **Itxaropenik bai?**

Orain arte zer egin duten ikusita, ez handiegia. EAJk eta EAK esaten dute ez dadelako ados Espainiako Alderdien Legearekin, baina gero zer egiten dute horren kontra joateko? Orain arte gauza handirik ez. Eta gero ere... Guk esaten diegu koherentziaz jokatzeko eta errespetatzeko hilaren 25eko emaitzak. Hitzetatik ekintzetara pasatzeko.

● **EH 1999an %34 lortu zuen Azpeitian. Orain zer Azpeitia gero daiteke?**

Oso Azpeitia herrera; azkenean Udalean presentzirik ez badugu.

● **EAJEAK baleko botoaren aldeko kanpaina egingo dutela uste al duzu?**

Bai, eta hasi dira esaten biak. Baina erakutsiko diegu Euskal Herrian milaka garaile herri honi buelta eman nahi diogunak eta herria eraikitzea nahi dugunak.

● **Eraiki, denekin?**

Denekin. Horretarako minimo batzuk adostera iritsi behar dugu.

● **PPk eta PSOEk ere arazoak dituzte zerrendak osatzeko. Habearen arazoa hor dago. Zilegitasunik ba al dute hauteskunde hauek?**

Ez dira hauteskunde demokratikoak, ezta gutxiago ere.

● **Baina zergatik diozu hori: Habeara begira edo...?**

Denera begira. Eta dagoen egoeragatik. Alde bateko eta besteko eskubideak egunero urratuta daude. Baina esango nuke askotan alde bateko indarkeriari botatzen zaiola errua, beste aldeko indarkeria ez dela aitatu ere egiten, eta uste dut indarkeriarik handiena Estatuak egiten duena dela.

● **Nola gainditu hau?**

Denen eskubide indibidualak eta kolektiboak errespetatuko balira, egoera gaindituko genuke.

● **Sozialista Abertzaleen gaur egungo zinegotzietatik zeu zara berriro aurkeztu zaren bakarra. Zer esan nahi du horrek?**

Gauza bat baino gehiago. Batetik, jende bat Udal honetako funtzionamenduari erre egin da. Bestetik, bakoitzak du bere familia, lana, eta horrek konpromisoak hartzeko denbora kentzen du.



ENEKOITZ ESNAOLA

**di-da bati**

● **Zure kiniela, Habeak ahal balu azkenean?**

EAJ-EAK 10-11, Habeak 6, eta PSE-EEk edo PPK bat.

● **Politikari bat?**

Arnaldo Otegi.

● **Euskal Herria ez den beste herrialde bat?**

Estaturik gabekoen artean, Ipar Irlanda eta Quebec, nahi dutena izateko aukera dutelako. Eta, estatua dutenen aldetik, Hego Afrika.

● **Balore edo irizpide bat?**

Zuzena izatea.

● **Hazparnerekin anaituta dago Azpeitia. Zein da hango alkatea?**

Ez dakit. Ez da abertzalea. Zer da, RPRkoa? [Jacques Coumet da, UMPkoa, eskuindar frantses nazionalista]

● **Euskal Herri independentea baina erdara duena edo Euskal Herri ez independentea baina euskara duena?**

Euskal Herria euskalduna bada, izan daiteke independentea; bestela, ez da izango.



“ Herriko taldeekin-eta egongo gara, programa azalduz; herritarrei gure botoa helaraziko diegu ”

“ Demokrazia falta izugarria da, eta garbi dago Euskal Herriaren kontra ari direla ”

“ Herriko arazo larrienei aurre egin nahi diegu; esate baterako, etxebizitzaren arazoari ”



ENEKOITZ ESNAOLA

» ● **Ez al dago beste faktorerik? Egoera politikoa?... Orain lau urte Lizarra-Garazi garaia zen...**

Dudarik ez egoera politikoak eragina duela, baina hemen egon diren pertsonak ez dut uste egoera politikoagatik utzi dutenik.

● **Gauzak nola aldatzen diren: orain lau urte herrian irabaztekoan egon zen EH, eta orain legez kanpo utzi dute Habea.**

Bai, baina guk beti bezala jarraituko dugu lanean. Abertzaleak eta ezkertiarrek gara. Gainera, gauza bat: oraingoan EAJ eta EA koalizioan doaz Azpeitian, baina ikusita biak zer jokabide hartzen ari diren, jende bati begiak ere argitu dizkio. Karetak denok kendu ditugu eta bakoitza den bezala azaltzen ari da.

● **Hauteskundeetako emaitzei begira zer?**

Ba boto asko lortuko ditugula.

● **2.923 boto izan ziren 1999an.**

Espero dugu eustea.

● **2001ean EAEkoen mila galdu ziren.**

Bai, baina orduan polarizazio handia egon zen. “Major Oreja dator eta EAJ-EAri eman behar zaio botoa”, esaten zen. Eta jende askok hala egin zuen. Baina harrezkero jendeak ikusi du EAJk zer egin duen eta damutu egin zaio 2001ean EAJ-EAri botoa eman izana.

● **Hauteskundeetara aurkeztuko zarete, beraz. Baina, egoera honetan, badirudi**

**bigarren mailan geratuko direla proposamenak eta, ezta?**

Guk boto ugari aterako ditugu. Zertarako? Herriko arazo larrienei erantzuna ematen saiatzeko.

● **Zein dira arazo larri horiek?**

Etxebizitzena da bat. Etxebizitza falta ez dago Azpeitian, %25 inguru hutsik daudelako, baina lau urte hauetan 600 etxebizitza gora egin dira eta prezioak 30 milioi pezetatik gorakoak izan dira. 1994tik ez da babes ofizialeko etxebizitza bakar bat egin Azpeitian, eta horrelakoak falta dira, batez ere gazteentzat.

● **Beste arazorik?**

Alde Zaharra. Urte askotan erabat utzita dago. Adibidez, kaleak itxi dira baina ez da oinezkotu. Plan estrategikoa egin behar du Udalak. Kalez kale, etxez etxe hasi behar da lanean, bota behar diren etxebizitzak bota eta berriak egin, konpondu behar direnak konpondu, alokairua sustatu, etxebizitza eskaeraren errolda egin, Udalaren lurretan etxeak egin...

● **Saihesbidea egin, bai edo ez?**

Foru Aldundiak erabaki du Landeta aldekoa egitea. Guk, hala ere, saihesbidea egin aurretik esaten duguna da lehendabiziko beste neurri batzuk hartu behar direla, eta hala jakinarazi diegu Udalari eta Foru Aldundiari, eta gero ikusi saihesbidea behar den edo ez. Adibidez, garraioa oso

gaizki dago: auzoetara ez dago, herrian bertan oso gutxi, eta bultzatu eta sustatu beharra dago. Urolako tren bultzatzeko asmoa ere dugu, Aceraliari labeak herriko beste toki batera eraman ditzan proposatuta.

● **Beste ardatz bat?**

Kultura mailan, Kultur Etxea egitea. Basazabalen edo beste leku batean berria eginda. Azoka Plaza berritzeko dago, adibidez. Bestetik, San Agustinpe lehenbailehen jarri behar da kultur gauzetarako, Soreasu ere bai. Kultur taldeei aukera eman behar zaie, indar handia dagoelako. Gazteria mailan, gaztegunea sortuko genuke. Eta emakumeen ekintza positiboko plana aurrera eraman nahi dugu.

● **Udalbiltza zer? Nola segitu lanean, segitu behar baduzue?**

Guk segituko dugu lanean, oso balorazio ona egiten dugulako egindako lanaz (Nazioarteko Konferentzia, esaterako; estaturik gabeko herrien autodeterminazioa ardatz hartuta egin zen, eta oso interresgarria, 31 herri bildu ginelako. Euskal Herriko Eskubideen Karta edo konstituzioa ere egin dugu herritarren partehartzearekin; gu egon ginen Azpeitiko taldeekin eta. Hizkuntza aldetik Kontseiluarekin Behatokia sortu dugu). Euskal Herriarentzat oso erakunde garrantzitsua da, lehen erakunde delako zazpi lurraldeetako, nazio mailakoa. Oraindik ez zaio, ordea, behar bezalako garrantzirik eman.

● **Zeintuz ari zara?**

EAJk eta EAK ez dute askorik egin, hauek ere Bilbon egon ziren arren sorreran.

● **Udalbiltzako aurpegi publikoetako bat izan zara azken lau urte hauetan. Zenbat denbora kendu dizu, edo hori ez da denbora kentzea, beste lan bat delako?**

Ez da denbora kentzea edo galtzea, udal ordezkarien lana delako, udalen lana. Ni ez nago liberatuta ez Udalean ez Udalbiltzan, baina horretara begira orduak pasatu ditut, hala egin behar zelako.

● **Udalbiltza politika egiteko era bat da. Baina Udalak politika ere egin behar al du? Dudarik gabe.**

● **Baina batzuek diote Udalak batez ere herriko gauzeara mugatu behar duela.**

Beste ikuspegi bat ere izan behar du. Eta Azpeitiak herri eredugarria izateko aukerak ditu: Udaleko hiru alderdiak abertzaleak gara, herria dezentekoa da, mugimendua dago, euskarak indarra du...



**BERTAKO  
HARAGIA...  
...GURE  
HARATEGIETAN**



**Beloki**  
Jose Nagusia, 75 Tel.: 943 85 04 82  
AZKOITIA  
Jose Arretxe, 21 Tel.: 943 151392  
AZPEITIA

**PATXO**  
  
EDUARDO BÉRASATEGUI  
Harategi eta Zerritegia  
Euskal Herriko Haragirik Onena  
San Inazio Kaleko 12an  
Urrut. 943 81 14 98

**HARATEGIA  
MATXIN**  
  
bertako okela  
HARZUBIA, 26 D  
TEL. 81 60 25  
ETXEKOA 15 00 03  
AZPEITIA

**Harategia  
Odriozola**  
Harategi  
Especializatua  
Arana Kalea, 14  
Urrut.: 943 81 1015

**JB San Sebastián**  
HERRIKO HARAGIA - HERRIKO TXERRIA  
ETXEKO URDAIKIA  
FORU HIBILBIDEA, 4  
TFNOA. 81 15 94  
AZPEITIA

**ZABALA HARATEGI**  
  
KALITATEZKO  
HARAGIA  
BUSTINZURIKO ERREBALA  
TFNOA.: 943 811671



# Manuel Unanue

EAJ-EA koalizioko  
Eako burua

## EA-REN MARKA JARRI NAHIAN



Koalizioan bai,  
baina bakoitzari  
bera. Hori nahi  
du Eak, bere udal  
taldea osatuta. Eta  
buru, alderdiko  
burua

Enekoitz Esnaola

# “Egoeragatik goaz EAJrekin batera, eta ez horrenbeste alkategaiagatik”

**E**z dago bere *territorioan*, batzokian dagoelako elkarrizketaren unean, baina etxean bezala mintzo da Eako Azpeitiko lehendakaria. Badirudi edozein tokitan mintzo dela beti berdin. Irekia baita. Urteak daramatza politikan, baina ez darabilki politikarien erretorika.

### ● Berrito Udaletxera, Manuel?

Bai, hala ematen du. Lehen ere lau urtean egonda nago Udaletxean, alkatearen ondokoa izandakoa nintzelako 1987-1991n, EAudal hauteskundeetara lehen aldiz aurkeztu zenean. Orain gustura sartuko naiz berriro.

### ● Azpeitian ez zarete behin ere EAJrekin koalizioan aurkeztu. Orain bai. Zergatik?

Orain dela lau urte ere aukera egon zen koalizioan joateko eta Azpeitiko batzarrak erabaki zuen ez joatea. Oraingoan, egoera politikoa zein den ikusita, Eako batzar nazionalak erabaki du EAJrekin joatea, eta Azpeitiko Eak hori onartu du.

### ● Herri denetan ez doaz koalizioan.

Eta herri askotan bai.

### ● Orain dela lau urte ere herri askotan, gehienetan, koalizioan joan ziren; zuek ez.

Baina orain lau urteko batzar nazionalaren erabakia eta oraingoa ez dira igualak.

### ● Zuek Azpeitiko EAJren zerrendaburuari ere garrantzia eman diozue, ezta?

Beno, horri ere bai, beste gauza batzuen artean. Ez da berdina zerrendaburu bat izan edo bestea. Baina erabakigarriagoa izan da Eako batzar nazionalaren erabakia, ez horrenbeste alkategaiaren kontua.

### ● Hauteskunde ondoren bakoitzak udal talde bana edukiko du.

Bai, hori koalizio barruan adostuta dago.

### ● Eta zer kalkulu egin dituzue EA bezala? Nola adostu duzue zerrendako ordena?

Koalizio barruan formula bat aplikatu da eta aplikazio hori herrietara eraman da.

### ● Zuek hasieran esan zenuten Azpeitian 13. zinegotzia EArena litzatekeela.

Gu saiatu gara hori lortzen, baina goi mailan koalizioa egin denean ez dugu hori lortu. Eta onartu behar izan dugu goitik etorri den aplikazio hori.

### ● Jakitun izango zarete 13.aren garrantziaz. Izan ere, koalizioak 13 zinegotzi lortzen baditu, EAJk gehiengo osoa izango du.

Gure gustuko koalizioa balitz, lehenena gurea litzateke, bigarrena ere bai... Baina koalizio batean ez da zuk nahi duzun dena onartzen.

### ● Eak beti esaten du bere estiloa duela, bere ideologia, baina Azpeitian gehiengo osoa EAJk balu...

Nik uste pertsona serioak garela eta programa egiten dugunean programa bat egiten dugula. Nik nahiago koalizioak hamahiru ateratzea baino hamalau ateratzea, eta hori hamalagarrena EAJkoa dela. Horrek esango luke udal batzordeetan jende gehiago ibiliko ginatkeela.

### ● Zuen alderdian zerrendak aukeratzekoan bi ildo egon dira. Zuenak boto bategatik irabazi du. Harrezkero egin al zenuten beste ildoko baten bat zerrendan sartzeko ahalginik?

Alderdi barruan beti egon dira iritzi desberdinak. Prozesu bat eman dugu eta hobeto edo okerrago bukatu da.

### ● Baina egin al da saiorik beste ildoko jendea zerrendan sartzeko edo ez da egin?

Behin herriko mahaian zerrenda onartu zenean, zerrenda itxiztat eman genuen.

### ● Baina boto bakar bateko alde zegoela ikusita...

Hori apustu bat izaten da eta kito.

### ● Eta zer dela-eta bi ildo horiek?

Gurea ez delako alderdi monolitikoa. Sentibilitateak daude gurean ere. Ez da bera Aita gurea batek errezatu edo beste batek.

### ● Julian Eizmendirekin ezkeraz eta esku-biaz jardun dugu. EA alderdi sozialdemokrata kontsideratzen da, EAJrekin zoazte... Ezkerra-eskubia kontzeptua azkenean oso





### di-da batien

● **Zure kiniela, Habeak ahal balu azkenean?**

EAJ-EAk 11, Habeak 6.

● **Politikari bat?**

Carlos Garaikoetxea.

● **Euskal Herria ez den beste herri bat?**

Iran, Irak ez ditut nahi. Nahiago Suedia bat.

● **Balore edo irizpide bat?**

Gardentasuna.

● **Hazparnerekin anaituta dago Azpeitia. Zein da hango alkatea?**

Ez dakit zein den.

● **Euskal Herri independentea baina erdara duena edo Euskal Herri ez independentea baina euskara duena?**

Euskal Herri independentea eta Euskal Herriak nahi duen bezalako.

zaila gelditzen da udal bat kudeatzeari.

Hamar pezeta badituzu, hori nola erabiltzen den da kontua, zertan gastatzen den.

● **Eta talante aldetik? Udalak atek zabalik izango du al ditu?**

Gure eginbeharra da Udaletxera datorrenari entzutea, eta, hala, atek zabalik edukiko ditugu, eta ahal bada, denon artean adostuko ditugu gauzak. Baina guk ere lehenetasun batzuk markatuko ditugu, eta erabakiak Udalean daudenean hartzen dituzte.

● **Uztarriaren egindako elkarrizketan, programari buruz Julian Eizmendik hitz egitea erabaki duzue. Etxebizitzenak dirudi zuen arlorik garrantzitsuena, eta horri buruz zer-bait esaterik bai?**

Bai, erabaki dugula da azkenean kopuru batera konprometitu behar ginela. Horrek asko esan nahi du, lotu egiten gaituelako, herri babespeko 200 etxebizitza egiteko konpromisoa hartu dugulako.

● **Herritik kanpoko lana egiteko asmorik bai Udalbiltzaren bidez?**

Azpeitia mailara zentratuago gaude gu.

● **Orain arte koalizioaz, EAko gauzez, etxebizitzet hitz egin dugu, baina hauteskunde hauek ba al dute zilegitasunik Habea legez kanpo utzi dutela eta?**

ETAk ez du baldintzatuko prozesu politikorik, eta PPK ere ez. Baina batzuek ezin dute aurkeztu: batzuk hilerrian daude eta besteak kartzelan; eta beste batzuek ere ezin dute aurkeztu bikoteak ez diolako aurkezten uzten. Hemen dena ez da zuria edo beltza. Gu azpeitiar bezala aurkeztuko gara, Azpeitiko alderdi bezala. Habeari aurkezten

ez utzita, alderdiko zuzendaritzak esango du EAK esan behar duena.

● **Zuk zer diozu?**

Tristea da dena. Lau urte hauetan Azpeitiko zinegotzi batzuek kalteak izan dituzte eta hemen batzuk isilik egon dira. Zinegotzi batzuei eskatu zaienean "ekintza hori ez eza zu onartu edo zerbait esan ezazu", *mutis* egin diote. Gu gaizki konponduko bagina demokraziarekin, eskopetak hartu eta Iza-rraitzera joango ginatke, baina nola kontu hauekin ez dugun sinesten... Guk sinesten dugu sinesten duguna, eta lana egiten dugu sinesten dugun horrekin. Hemen indarkeriak era askotakoak dira. Tristea da azpeitiar bat hautagaia delako etxetik irteteko beldurrez egotea eta auto azpian begira ibiltzea. Tristea den bezala etxetik hartu batzuk goizeko lauretan, eraman eta torturaztea.

“Earen batzar nazionalak erabaki du EAJrekin joatea, eta guk onartu egin dugu hori”

“EAn ere sentsibilitateak daude, baina mahaiaren zerrenda onartu zenean, itxiztat jo genuen zerrenda”

“Habeak ezingo du aurkeztu, baina beste batzuek ere ez. Hemen dena ez da zuria edo beltza”



# Manoli Uranga

PSE-EEko  
hautagaia alkatetzarako

## EGOERA ZAILEAN, HERRIAN HAUTAGAI



Nahasmendua nabari zaio, "egoera beltza" dagoelako, baina berriro zerrendaburu izango da

Enekoitz Esnaola

# "Inork ez genuke aurkeztu behar oraingoan"

Irratia jarria du etxean, "ia beti bezala", eta Fidel Castroren kontra Madrilin egin duten kontzentrazioaren berri jakin nahi du oraingoan. Besteetan beste gauza batzuk dira, gertuagokoak, latzagoak. Askotan egiten du hasperen.

### • Animatuta?

Ahal den neurrian.

### • Zerrendan zeu zara azpeitiar bakarra.

Ez dudalako nahi beste azpeitiarrik izaterik. Batzuk azkoitiarrak dira.

### • Herrian babes sozialik ez izateak zer babes ematen dizu erabakiak hartzeko garaian eta?

Gauzak kontsultatzeko-eta badut jende bat. Azkoitiko egoitzara ere joaten naiz.

### • Zer helbururekin aurkeztuko zarete?

Helburua bakarra da: guk, pentsatzen dugun bezala pentsatzeko eskubidea daukagu, eta horrela pentsatzen duten herritarrei gure aukera hori eman nahi diegu bozkatzeko orduan.

### • Eraitza aldetik?

Azpeitian garenak gara eta herriko hauteskundeetan ditugun botoak mantentzearekin gustura.

### • Ez al daukazue anbiziorik zinegotzi bat lortzeko ere?

Ni, lehengo botoei helduta, gustura.

### • Orduan zergatik aurkeztu zara zerrendaburu?

Lehen esan dut: jende bati botoa emateko aukera emateko.

### • Zer proposatzen duzu?

Erreperatu alderdien hautes programei, eta nik uste denak ere berdinak direla.

### • Ez da horrela ere. Orain dela lau urte, adibidez, Azpeitiko PSE-EEK, denek ez bezala, Kultur Etxea irekitzea proposatu zuen.

Behar delako, azpeitiar denentzat. Orain ere hala pentsatzen dugu.

### • Zer gehiago proposatzen duzue?

Askoz gehiago ez. Elkarbizitza lortzea da gure helburu nagusia.

### • Baina zuek, alderdi sozialista bezala, politika sozialari ere garrantzia emango diozue, ezta? Egiten al da politika sozialik herrian?

Bastidak gauzak ondo egin ditu, baina bere erara, indibidualki jendeari lagunduz. Baina nik uste arlo batzuk alderdi batera utzita egon direla: gazteria —orain Zapo Txiki badago baina...—, kultura...

### • Hauteskundeok ba al dute zilegitasunik?

Neure zalantzak ditut. Egoera, oso beltza ikusten dut, denontzako. Pertsona bezala aldatzen ez bagara, egoerak oso beltza izaten segituko du.

### • Azpeitian ezker abertzaleak (EHk) azken udal hauteskundeetan botoen %34 lortu zuen. Orain legez kanpo utzi dute Habea eta...

PSOEek eta PPK bezala, Habeak ez luke aurkezteko inolako arazorik izan behar. Baina nik uste dut inork ez genukeela aurkeztu behar.

### • PSOEek eta PPK sortu duten Espainiako Alderdien Legeagatik utzi dute legez kanpo Habea...

Ez nengoen han Alderdien Legea sortu zutenean...

### • Baina bat egiten al duzu?

Gauza askorekin ez. Baina ezker abertzaleak ba al zeukan denok berdintasunen aurkezteko proposamenik? Gauza bat: askok etxetik irteterik ez dugu.

### • Beste batzuek diote denek ez dutela aukerarik beren ideiak gauzatzeko.

Baina besteari izateko aukera kenduz? Hauteskundeetan gaude, orain lau urte bezala, eta nik badakit Azpeitian zenbat lagun ditudan urte hauetan.

### di-da batien

#### • Zure kiniela, Habeak ahal balu azkenean?

EAJ-EAk 12-13, Habeak 4, PPK 1.

#### • Politikari bat?

Ramon Jauregi.

#### • Euskal Herria ez den beste herri bat?

Castilla-Leon.

#### • Balore edo irizpide bat?

Berdintasuna.

#### • Hazparnerekin anaituta dago Azpeitia. Zein da hango alkatea?

Arrastorik ez.

#### • Euskal Herri independentea baina erdara duena edo Euskal Herri ez independentea baina euskara duena?

Bigarrena.



# EAJ-EA

## BATERA ORAIN, ETA BERRITU BATEKIN



**Iñaki Etxezarreta**  
• 55 urte • Udal langile  
• EAJ • Afiliatua



**Ana Mendizabal**  
• 46 urte • Irakaslea  
• EAJ • Independentea



**Mikel Ibarzabal**  
• 50 urte • Langilea  
• EA • Independentea



**Aitor Gorrotxategi**  
• 28 urte • Bankuan  
• EAJ • Afiliatua



**Ana Maria Reza**  
• 40 urte • Informatikaria  
• EAJ • Independentea



**Kandido Mitxelena**  
• 50 urte • Administraria  
• EA • Afiliatua



**Julian Kortajarena**  
• 45 urte • Kaldereroa  
• EAJ • Independentea



**Jose Luis Mangas**  
• 59 urte • Industrian  
• EAJ • Afiliatua



**Onintza Zeberio**  
• 28 urte • Irakaslea  
• EAJ • Afiliatua



**Esther Larrañaga**  
• 42 urte • Aldundian  
• EAJ • Afiliatua



**Iñaki Larrañaga**  
• 41 urte • XTn produkzio buru  
• EA • Afiliatua



**Edurne Arruabarrena**  
• 21 urte • Langilea  
• EAJ • Afiliatua



**Iñaki Letamendia**  
• 41 urte • Langilea  
• EA • Afiliatua



**Izaskun Lizarralde**  
• 27 urte • Logopeda  
• EAJ • Afiliatua



**Salvador Gorostola**  
• 55 urte • Aberekin  
• SAN • EAJ • Afiliatua



**Pello Elorza**  
• 45 urte • Euskara irakaslea  
• EAJ • Afiliatua

# HABEA SASI GUZTIEN GAINETIK...



**Miren Odriozola**  
• 59 urte  
• Udalbiltza



**Iñaki Errazkin**  
• 27 urte  
• LABeko kidea



**Dorleta Odriozola**  
• 27 urte  
• Euskara arloa



**Aitzol Iparragirre**  
• 27 urte  
• Kultura arloa




**Luis Etxeberria**  
• 50 urte • Etxerateko kidea



**Garikoitz Mendiola**  
• 20 urte  
• Gazteria arloa



**Manex Beristain**  
• 26 urte  
• Kirol arloa



**Alfonso Etxeberria**  
• 61 urte • ELAko idazkari nagusi ohia



**Anjel Etxeberria**  
• 34 urte • Euskal Presoak Euskal Herrira Platalormakoa



**Joxe Garmendia**  
• 44 urte  
• Irakaskuntza



**Beatriz Mendizabal**  
• 28 urte  
• Landetarra



**Aitor Iparragirre**  
• 28 urte • Lagun Onak Futbol Taldekoa



**Joxe Mari Iturria**  
• 52 urte  
• Langilea



**Ane Goenaga**  
• 29 urte  
• Euskara arloa



**Gaizka Larrañaga**  
• 34 urte  
• Arkitektoa



**Mertxe Urtuzaga**  
• 39 urte  
• Nuarbekoa



**Edurne Aizpuru**  
• 35 urte  
• Urrestildarra



**Imanol Salegi**  
• 52 urte • Lagun Onak Mendi Bazkuneko



**Mila Agirre**  
• 64 urte  
• Etxeko lanak



**Mikel Labaka**  
• 24 urte • Presoen aldeko mugimenduko

## PSE HERRIKOA BURU

- 1. Manoli Uranga • 2. Evaristo Fernandez • 3. Santiago Rodriguez • 4. Angeles Gomez • 5. Jose Laureano Garcia • 6. Francisco Frias • 7. Manuel Chueca • 8. Aurora Garcia • 9. Vicente Fernandez • 10. Jose Antonio Sanchez • 11. Maria Angeles Apalategi • 12. Juan Linares • 13. Federico Alonso Los Santos • 14. Maria Carmen Amubastegi • 15. Manuel Dominguez • 16. Ezequiel Rojo • 17. Jose Maria Diez

## IU BIZKAIKO KIDEAK

- 1. Francisco Javier Buron • 2. Venancio Gonzalez • 3. Jose Maria Lavin • 4. Jose Miguelez • 5. Maria Jesus Alvarez • 6. David Rivas • 7. Alberto Furones • 8. Juan Jose Espejo • 9. Ruben Moyano • 10. Jose Angel Cabeza • 11. Juan Crespo • 12. Rosindo Gregorio • 13. Francisca Rodriguez • 14. Angel Maria Martin • 15. Julian Sanchez • 16. Juan Carlos Villaverde • 17. Ricardo Roman

## PP ARROTZAK IA DENAK

- 1. Francisco Javier Piñeiro • 2. Juan Ignacio Baribar • 3. Ignacio Maria Olaizola • 4. Maria de los Dolores Ercilla • 5. Cesar Pascual Fernandez • 6. Jose Maria Garrido • 7. Pedro Ramirez • 8. Antonio Garcia • 9. Manuel Abad • 10. Paloma del Castillo • 11. Marina Gomez • 12. Luis Peral • 13. Maria Pardo • 14. Jose Ramon Aparicio • 15. Javier Gonzalez • 16. Maria Rodriguez • 17. Eduardo Jimenez



hautagai abertzaleak

- **GAZTEENA.** Garikoitz Mendiola (Habea): 20 urte.
- **ZAHARRENA.** Mila Agirre (Habea): 64 urte.
- **EMAKUMEZKOAK.** 14.
- **GIZONEZKOAK.** 26.
- **EUSKARADUNAK.** Denak.
- **LANBIDE NAGUSIA.** Ira-kaskuntza: 6.

datua

20.214

euroko aurrekontua kudeatu beharko du aurten udal gobernu berriak. Azken legegintzaldiko udal agintariek hala onartu zuten—martxoaren 17ko udalbatzarrean—. De-

na den, urtean zehar, Udaleko agintari berriek agintea hartu ondoren, sailaren barruan eta sail batetik besterako kreditu aldaketak egiteko aukera izango dute. Bestela ere diru partida aldaketak egin izaten baitira.

oharra

[www.uztarria.com](http://www.uztarria.com)

Julian Eizmendi, Miren Odriozola, Manuel Unanue eta Manoli Uranga herriko hautagaiei aldi-kari honetarako egindako elkar-rrizketa osoak [www.uztarria.com](http://www.uztarria.com) helbidean irakur daitezke.

# ASMOAK, PLANAK... PROMES UGARI



Zer eskaintzen dute alderdiek datozen lau urteotarako Azpeitian?

Nerea Uranga

## HIRIGINTZA

● **EAJ-EA.** “Saihesbidea lehenbailehen egitea bultzatu; Azpeitiak beharrezko dituen komunikabideak hobetzea bultzatu (N-1erako irteera...)”.

● “Kasko zaharraren biziberritzearekin jarraitu: etxebizitzak eraikitzen jarraitu, lur-zorua eraberritu”.

● “Herriko hainbat lekutan lurpeko apar-kalekuak egiteko aukerak aztertu eta gauzatu (alde zaharra, Betharram...)”.



● **HABEA.** “Azpeitian plan urbanistiko orokor bat egitea, Sanjuandegi auzoa eta alde zaharra eraberritzearen plan estrategikoa martxan jartzea”.

● “Garraio bide publikoek lehentasun osoa izan behar dute”.

## INDUSTRIA

● **EAJ-EA.** “Lurzorua prestatu ekonomia jarduerari zuzenduta: gaur egungo garapen industrialara osatu, eta garapenari begira industri lurzoru berriak eskaini”.

● “Enpresa ekimen berriak sustatu”.



● **HABEA.** “Lan banaketa. Enplegua-ren banaketa ezinbestekoa da langa-beziari aurre egin ahal izateko eta lan banaketa erreala bermatu ahal izateko”.


● “Enplegu batzordea sortu”.

## KOMUNIKAZIOA

● **EAJ-EA.** “Herritarrei Udalaren gertakizun eta ekintza garrantzitsuenen berri ematea eta teknologia berrien bidez azpeitarrekin komunikazio-bide berriak irekitzea (kexa eta iradokizunak, alkatearekin harreman zuzena, proiektuak jendaurrean jar-tzea...)”.



● **HABEA.** “Herriko planteamendu oro herriko sektore eta mugimenduekin kontrastatuz egingo da”.



ETxebizitzaren arazoari garrantzia ematen diote.

## ETXEBIZITZAK

● **EAJ-EA.** “Herri-babespeko 200 etxebizitza eraiki (babes ofizialekoak —VPO—, salneurri tasatukoak eta etxebizitza sozialak)”.

● “Hutsik dauden etxebizitzak alokairuan jartzeko politika bultzatu; etxebizitzak alokairu sozialean eskaintzeko Eusko Jaurlaritzaren politika bultzatu”.



● **HABEA.** “Kanpo futbola lekuz aldatu (Loiola bidean kokatuz) eta hango lur publikoetan etxebizitza publikoak egitea. Gutxienez 200 etxebizitza”.

● “Udala bitartekari dela, etxe hutsen jabeekin egon eta alokairuan jartzea”.

● “Alde zaharraren etorkizuna ziurtatzeko, eraiki eta berrituko diren etxeetan gazteei lehentasuna ematea”.

● “Ezintasun fisikoekin, eraikin zaharretan bizi direnei laguntzak ematea”.

## PSE-EE, IU, PP

● **OROKORRA.** Udal hauteskundeetara aurkeztuko diren gainontzeko alderdiek —PSE-EEK, IUk eta PPK— ez dute programa zehatzik egingo.



## Zer egiten du azpeitiar batek Donostian?

Donostian azpeitiar bat da Aralarreko burua: Iñaki Regil. Hantxe bizi da. EAJ-EAkoa, azkoitiarra: Roman Sudupe. Urola power...



Iñaki Regil. / UZTARRIA

## Gipuzkoako Foru Aldundirako ere bai

Udal hauteskundeak ez ezik, Gipuzkoako Foru Aldundikoak ere izango dira maiatzaren 25ean, eta, beraz, Diputaziorako hautagai diren alderdiei edota plataformei botoa eman ahal izango zaie.



## GIZARTE ZERBITZUAK

- **EAJ-EA.** "Adin nagusikoen eta ezintasunak dituzten pertsonen beharrei irtenbidea emango dien egoitza bat bultzatu".
  - "Adin nagusiko pertsonen partaidetza sustatu herriko bizi soziokulturalean".
  - "Adin txikiko eta arrisku egoeran dauden gazteentzako prebentzio eta laguntza planak bultzatu. Gurasoen Topagunea bultzatu eta indartu".
  - "Emakumeen aldeko plangintza positiiboak bultzatzen jarraitu eta hauen jardura ekonomikoaren tasa gehitzen ahalegindu (ikastaroak, laneratze-prozesuak bultzatu, teknologia berriak...)".
  - "Etxebizitza tutelatuen sorrera indartu".
  - "Gizartea sentsibilizatu eta integrazio neurriak bultzatu; %0,7arekin jarraitu".



- **HABEA.** "Emakume saila sortu".
  - "Loiola-Azpeitia gizarte baliabide zentrua osotasunean zerbitzu publiko izatea".
  - "Aisialdirako alternatiba integrala".
  - "Udalak eskaini behar dituen baliabideei buruzko azterketa eta berauei buruzko informazioa gizarteari helaraztea".
  - "Pisu tutelatuen eskaintza eskaria aztertzea".
  - "Eguneko zentroa. Adin guztientzako".

## INGURUMENA

- **EAJ-EA.** "Tokiko Agenda 21en Ekintza Planarekin bat eginez, aurrekoek emandako pausoak jarraitu eta sendotu".
  - "Mugikortasun jasangarriaren printzipioetan sakondu: Landeta aldera garraio publiko bultzatu, herrian bidegorriak egitea aztertu, sentsibilizazio kanpainak egin...".
  - "Aisialdi eta denbora liberako guneen aurreikuspena eta berreskurapena, berdeguneak, plazak, paseoak...".



- **HABEA.** "Herrian gero eta urriagoak diren berdeguneak mantendu, gune urbanistikoak ahalik eta gutxien zabalduz".

## GAZTERIA

- **EAJ-EA.** "Gazteentzako baliabideekin (Ludoteka, Zapotxoko, Gazteentzako Informazio Bulegoa...) jarraitu eta indartu".
  - "Gaztegunearen gaiari irtenbidea eman".
- **HABEA.** "Gazteriarri bestelako sektorei bezalaxe baliabideak eskaintzea beraien ekimen propio eta kritikoa garatzeko. Eta ezinbestekoa da gazte lokalak eta azpiegiturak eskaintzea".



## HEZKUNTZA

- **EAJ-EA.** "0-3 etapa garatu, Eusko Jaur-laritzaren proposamenaren garapenerako ekimenak bultzatu".
  - "Herriko merkataritza eta enpresetako beharrek bat etorriko den lan programa heziketak ziurtatu bailarako plangintza orokorraren baitan (Lanbide hastapenak, Heziketa zikloak, Sartu, INEM...)".
  - "HHI: Helduen Heziketa Iraunkorreko zentroa Azpeitian izatea bultzatu".
- **HABEA.** "Nazio garenez, eskola propioaren alde lan egingo dugu".
  - "Hezkuntza integraleko hezkuntzaren nahia: antza, parte-hartzailea...".
  - "Hezkuntza zentruak lankidetzara esparruak bizkortzea sustatuko dugu".
  - "Haurtzaindegia publikoa".



## KIROLAK

- **EAJ-EA.** "Kirol gunea bultzatu: belar artifizialeko zelaia, tenis eta paddle pistak, atletismo zirkuituak...".
  - "Aisialdirako paseoak eta bidegorriak jartzea aztertu eta gauzatu; Ibai Eder urtegia inguratzen duen ibilbidea egokitu".
- **HABEA.** "Kirol Batzordea sortu, kirol elkarten ingurukoa eta eskola kirolaren inguruko azpi-sailekin".
  - "Kirolgune bateratu bat egin Loiola bide inguruan".



## KULTURA

- **EAJ-EA.** "San Agustingo bigarren fasea ejekutatu, kultura eta gizarte erabileretarako".
  - "Basozabal etxea herriaren beharretarako prestatu".
  - "Soreasu zinea eraberritu eta kulturplangintzara bideratu".
  - "Herriko kultur taldeekin harreman sendo eta iraunkorrak bermatu".
  - "Liburutegia gaurkoratu".
  - "Indarrean dauden kultur ekintzak bultzatu eta indartu: Antzerki Topaketak, Aste-buru Musikalak, Azpeitia Dantzan, Azpeitia Iruditan, Azpeitiaren kultura eta historiari buruzko liburuak argitaratzea...".



- **HABEA.** "Lehentasunezkoa da herritarrek eta taldeek datozen urteetan euren kultur jarduna duintasunez garatzeko azpiegiturak egokitzeari".
  - "Antzerki Topaketak. Programazio zabal diseinatu behar da eta lehentasunezkoa da antzoki egoki bat prest izatea".
  - "Auzoetan irakurketa gelak bultzatu".
  - "Azpeitia mende bati begira testigantza grafikoa bildu. Azpeitiko historia azterteko beka sortu...".



## Badoa, berria eta berriro

- Unanue (SA) uztera doa; bestela 'legez kanpo' legoke

**U**daletxeko ate aurrean egin dugu argazkirako hitzordua hirurekin. Bat badoa Udaletik, ez da aurkeztuko maiztaren 25eko udal hauteskundeetan; Ai-

tor Unanue da eta lau urte egin ditu zinegotzi. Euskal Herritarrok-eko ordezkari bezala sartu zen eta gaur egun ASAko zinegotzia da. "Orain lau urte konpromiso



Aitor Unanue, Konxita Martija eta Aitor Gorrotxategi

- 1. Datozen lau urteotarako legegintzaldiko agintariei zer eskatuko zenieke?
- 2. Zerk izan behar du lehentasuna Azpeitian?
- 3. Habea Azpeitiko ezkertiar eta abertzale plataforma legez kanpo utzi dute. Zer iruditzen zaizu?

Zer eskatzen du herriak? Uztarria galdezka ibili da herriko talde batzuetan

Nerea Uranga

### Irene Boo (Azpeitiko Txolarte)



"Adimen urritasuna dutenentzako ekintzak gutxi dira"

- 1. "Gure taldearen beharrez jabetzea eta gainditzen laguntzea, eta taldeko bazkideentzat, beraien autonomia lortu ahal izateko laguntzak eskatuko genituzke".
- 2. "Herritarren ongizatea lortzeko beharrezkoak diren baliabideen inguruan lan egitea garrantzitsua dela uste dugu. Haurrak, gaztetxoak, hirugarren adinekoak biltzeko guneak ditugu herrian, baina gure taldekoak herriko beste gazteekin biltzeko gunerik ez dago. Positiboa da gune hori, beharrezkoa den integrazioa bultzatzeko. Bestalde, herriko kolektibo desberdinei ikastaroak, ekintzak... eskaintzen zaizkie, baina adimen urritasuna duten pertsoneri zuzendutakoak oso gutxi dira".
- 3. "Ez nago batere ados neurri honekin, adierazpen askatasunaren aurkako neurri bat baita. Eta jada pentsa dezakegu dena moztu nahi dutela eta dena debekatuta dagoela".

### Josu Eizagirre (Lagun Onak Mendi Bazkuna)



"Herritarren alde lan egitea eskatuko genieke"

- 1. "Hautes kanpainen eskaintzen dutenetik ahal duten guztia betetzeko. Eta herriko taldeak eta hauen lana baloratzeko".
- 2. "Makroproiektuak alde batera utzita herritarren interesei begiratu lan egitea".
- 3. "Oso gaizki iruditzen zait. Azpeitiarren kopuru handi baten iritzia kontuan ez delako hartuko, eta iritzi hori ere kontuan hartu beharko litzateke".

### Jon Ugalde (Azpeitian Gazteok Zer?!)



"Gazte arloko arazoan irtenbideak aurkitu behar dira"

- 1. "Gazteekiko eduki duten jarrera alda-



**5** hautagai dira legegintzaldi honetan zinegotzi egon direnak: EAJtik Iñaki Etxezarreta, Aitor Gorrotxategi eta Jose Luis Mangas, EAtik Kandido Mitxelena, eta Habeatik Miren Odriozola.

bat hartu nuen eta gaur egun ez daukat modurik konpromiso hori hartzeko”, dio Unanuek. Beraz, arrazoi pertsonalak tar-teko ez da berriro aurkeztuko.

Aitor Gorrotxategi (EAJ) berriro da hautagai. Lau urte egin ditu Udalean, atzera aurkezteko aukera eskaini zioten alderditi-  
tik eta onartu egin zuen proposamena. Zinegotzi balitz berriro, gaur egun buru den

batzordean lan egitea “gustatuko” litzai-  
ke Gorrotxategiri: Kulturaren.

Udaletxe barrenak ezagutzeko aurrene-  
koz hautagai dena Kontxita Martija (EA)  
da. “Gogoz nago lanerako, batez ere gaz-  
teekin eta adineko jendearekin lan egite-  
ko; hala esan nion gure hautes zerrenda-  
buruari”, dio Martijak.

Hiru lagun. Hiru kasu. / Nerea Uranga

tzea eta gazteok ditugun hainbat arazoren inguruan lan egitea eskatuko genieke. Ara-  
zo hauen zergatiak eta irtenbideak aurkitu behar dira, gazteon parte-hartzea bultzatu-  
tuz”.

● **2.** “Gazte mailan Gazte Lokalak izan behar du lehentasuna. Herrian dugun alternatiba faltarekin eta elkarren arteko komunikazio ezarekin amaitzeko tresna da. Gazteen ardurapean egongo litzateke gunea; hau da, gazteok kudeatua beti ere, parte-hartzea bultzatu eta dauden arazo-  
en inguruan lan egiteko gunea izanik. Zapo Txokorekin ez dira behar horiek asetzen; soldatapeko pertsonak antolatzen dituzte gauzak, gazteok ditugun beharrak zein diren galdetu gabe. Gazteok ez dugu nahi gauzak eginda ematea; gazteok etorkizunari eta geure biziari begira gauzak egitea nahi dugu”.

● **3.** “Gaizki iruditzen zaigu. Herriaren ordezkari-tza zabal bati muzin egiten bati-  
zaio. Eta guk, Azpeitian Gazteok Zer?! Taldeak, hori bilatzen dugu, herritarren parte-hartzea”.

**Joxe Mari Eizagirre** (Lagun Onak Futbol Taldea)



“Orain dela lau urte zelai sintetikoa eskatu genuen”

● **1.** “Ezer ere ez. Aurreko hauteskundee-  
tan eskatu genuen eta gero ez zuten ezer egin. Guk futbol talde bezala zelai sinteti-  
koa eskatu genuen”.

● **2.** “Kirol mailan, Udalak kirol instalazioak ondo daudela esaten du. Baina beste kirol taldeekin hitz egin eta azkeneko hamabi urteetan Udalak ez du ezer egin kirol instalazioak hobetu ahal izateko. Azpeitian kirol arloa asko mugitzen da, eta uste dugu kirol taldeok elkarrekin gehiago egon eta soluzioak bilatu behar ditugula, gero Udaletxean denok batera eskabideak egi-  
teko”.

● **3.** “Oso gaizki iruditzen zait Habea ilegaliz-  
tatzea. Aurreko legegintzaldietan ezker abertzaleak botoak jaso ditu eta bere ordezkari-tza izan du Udaletxean. Eta orain aurkezteko aukera ukatzea oso gaizki iru-  
ditzen zaigu”.

tatea izanik eta emakumeak eskubidedun su-  
jetu garen heinean, errealtate horrekin apurtzeko konpromisoak hartzea da gure ustez lehentasuna”.

● **3.** “Gaizki iruditzen zaigu Habea platafor-  
ma ilegalizatzea. Azken finean, herritarren zati handi bat ordezkari gabe geldituko litzateke Azpeitiko Udaletxean. Eta horrek, ondorioz, gure taldearen lana ere baldin-  
tzatuko du. Eta emakume bezala ere oso ondo dakigu zer den aukera ukatzea. Adibide bezala esan, ez direla hainbeste urte boto eskubidea lortu zutela emakume-  
ek”.

**Ramon Lamariano** (Kale Gorrian)



“Beharren araberako etxebizitza politika egin behar da”

● **1.** “Etxebizitzen gaiaren egoeraren larri-  
tasuna dela medio irtenbide egoki bat aurkitzea eskatuko genuke. Udalak daraman etxebizitza politika desegoki horrekin amaitzea eta beharren araberako etxebi-  
zitza politika egitea eskatuz. Beharrik gehien dutenentzako gaur egun ez dago aukerarik; alokairu sozialaren politika, adi-  
bide”.

● **2.** “Herritarren artean etxebizitza beha-  
ren araberako azterketa egin beharko litzateke eta, ondoren, behar horiek guz-  
tiak beteko dituen politika eraman beharko litzateke aurrera”.

● **3.** “Kale Gorrian taldea ere herriko gizar-  
te eragileetako bat denez, Habea ilegaliza-  
tuta uste dugu denon iritzia ez dela isla-  
tzen. Hitza emateko eskubidea urratuko zaio azpeitiarren kopuru handi bati. Bestetik, etxebizitzaren gaiari begira, Udaletxean beste iritzi bat gehiago izatea ere ona dela iruditzen zaigu, guri ere komeni zaigulako. Habea ilegalizatu duen legea espainola da eta horretan iritzia geuk eduki beharko genuke, euskal herri-  
tarrok”.

**Iker Segurola** (Bai Euskal Herriari)



“Udalean EHNaren erabilera bermatzea eskatzen dugu”

● **1.** “Gure taldetik, Bai Euskal Herriaritik Udaleko agintariei, Udaletxean eta Uda-  
laren instalazio guztietan EHNaren erabi-  
lera bermatzea eskatuko genieke”.

● **2.** “Azpeitiarrok gure eguneroko bizitzan: Udaletxean, merkataritzan... euskal herri-  
tar bezala bizitzeko aukera izatea EHNA erabiliz eta DNla erabili beharrik gabe”.

● **3.** “Euskal Herriak eskubide zibil eta poli-  
tikoak urratuak ditu, azkenengo gertaerak (Egunkaria ixtea, Udalbiltzaren ilegaliza-  
zioa...) oinarritzko eskubideen aurkako eraso larriak dira. Orain, Habearen ilegaliz-  
azioarekin, azpeitiarren zati garrantzitsu baten eskubideak ukatuak izango dira”.

**Eli Aranguren** (Izarraitzpeko Sorginak)



“Udalean emakume arloa sortzea eskatzen dugu”

● **1.** “Emakume arloa sortzea, honetarako beharrezkoa den aurrekontu berezitu eta zehatza bideratuz. Azpeitiko emakumeak beharrezkoak dituzte Udalaren aldetik lu-  
zatutako politika aktiboak gizarteko edo-  
zein arlotan emakumearen parte-hartzea eragin eta bultzatzeko”.

● **2.** “Bai Udalean eta bai herri mailan kont-  
zientzi aldaketa ematea. Emakumeen aurkako zapalkuntza ukazina den erreali-  
-tatearen inguruan”.



**datue**

**1.548**

bi-daiari ibili ziren Aste Santuko bost egunetan Euskal Burni-bidearen Museoko lurrinezko trenean. Iaz baino 500 lagun gehiago.

**dato historikue**

**1682**

an parrokiko erretaula nagusia egitea erabaki zen aho batez.

**esaldiye**

“Euskal gizarteak sortu behar du Euskal Unibertsitatea, euskaraz funtzionatzen duen unibertsitatea”

Xabier Arregi

(Euskal Herriak Euskal Unibertsitatea herri ekimeneko kidea)

**esaerie**

“Mihiaz egiten den mina da azken sendatzen dena”

**liburutik ttak**

“Dagoen joera da, ezkutatzu edo ukatuz soluzionatzeko problemak: ez dago abertzaleago eta gutxiago abertzaleric (zeinek dauka abertzale-tasun autentikoaren txartelak banatzeko monopolioa?); ez dago moral absoluturik (beraz, moralik ez da batere egongo Estatuak obligatzeko). Azkenean, ez da horrelaxe aitortu nahiko baina, ez dago Estatuaren moralik, ez dago eta Estatu baina gora-goko instantzia moralik”.

Joxe Azurmendi ‘Demokratak eta biolentoak’. Elkar. 1997.

**kontue da...** Imanol Elias Odriozola (idazlea)



**AZPEITIAR BAT ORINOCON (II)**

**J**oxe Iturriagaren agindua betetzen ahalegindu zen Perh Löfling suediarra: bidean aurkitutako landareak aztertzen eta, batez ere, Orinocoko inguruko ibaien ertzetakoak; baina gaixotasunak menperatu zuen bere langintza.

Cumamá hirian 1754ko abuztuaren 9an Iturriagak gutun batean adierazi zion suediarriari, zazpi egun aurretik idatzitakoaren erantzunik gabe kezka azalduz, berekin batera sendagaiak bidali baitzizkion gizonezko batekin, eta aginduz Tocuio misiora bidaiari egiteko ahalik eta azkarren, eta hango zuhaitzei azala eta zati bat kendu ondoren bidaltzeko. Bost eta hamar urte bitarteko zuhaitzekin egin behar zuten eta baita zuhaitz zaharrenekin ere.

Hiri berean 1755eko martxoaren 10ean idatzitako gutunean, berriz, bere poza azaldu zuen Iturriagak. Suediar maisua sendatu zen eta

aurkitutako landareak gehiago ziren, 90en bat, eta generoak beste hogei.

Baina azpeitiarrak laguntzaile handia 1756ko otsailaren 22an galdu egin zuen, Caroni ibaiaren inguruan hil zen. Ordea, Iturriagaren espedizioak ez zuen utzi landare azterketa, lurraldeko mapak egiten zituen bitartean. Laguntza ona izan zuen Eugenio Alvarado eta Joxe Solano taldekideetan. Lehena Guayana aldera bidali zuen, batez ere Altagracia herri-ka inguruko kina zuhaitzak aztertzeraz; eta bigarrenari Orinoco goia aztertzea agindu zion, kanela oihanak aurkitzeko asmotan.

Azpeitiar baten abentura baten zatitxo bat aipatzea besterik ez dugu egin, garrantzitsua garaian, eta era batera edo bestera albisteak bil daitezkeena. Baina berak bezalako laguntzarik gabe Indietarako bidea hartu zuten herri-

**garai bateko Azpeitiye** ...Juan Aramendik kontatua

**Baserrien egunerokoa, lana**

Gero eta baserri gutxiago daude inguruan, eta gaur egun, jende gutxiagok egiten du bertan bizitzeko aukera

**Nerea Aranburu**

**E**uskaldunon bizitzan beti izan dira garrantzitsuak baserriak. Euskaldunen historia beti dago baserriarekin lotuta. Lehen, aspaldi, baserriak ziren nagusi gure inguruan. Gaur egun, zoritxarrez, gutxi dira bizirik dirautenak. Oraingo belaunaldi berrien artean, pixkanaka-pixkanaka gero eta gutxiagok bizi dute baserri giroa.

Juan Aramendi jaiotzez baserrikoa da, nahiz eta orain kalean bizi den. “Nik urte asko eman ditut baserrian bizitzen: 30 urte, hain zuzen. Gero kalera ezkondu nintzen. Hala ere, oraindik asteburuetan joaten naiz baserrira”. Juanek animalia eta baratza txiki bat ditu bertan. “Nire senitarteko batzuk bizi dira baserrian eta astean zehar haiek egiten dituzte baserriko lanak. Asteburuetan joaten naiz pixka bat laguntzera, beti egoten baita zerbait egiteko”, dio.

Baserriko bizitzaren eta kalekoaren arteko parekotasunaz hitz egitean, “oso ezberdinak” direla dio Juan Aramendik. “Kalean bizitzea erosoagoa da. Lanetik itzuli eta ez duzu gehi-ago ezer egin beharrik. Baserrian bizitz gero, ordea, beti dago lanen bat egiteko”.

**GOIZEAN GOIZ JAIKI BEHARRA.** Nahiz eta orain baserrian ez den bizi, oso ondo gogoratzen da nolakoa izaten zen baserriko egun bat. “Baserrian bizi nintzenean, egunero goizeko zazpiak aldera jaikitzen ginen. Guk animalia gehiegi ere ez genituen, behi batzuk, oiloak eta beste ardi batzuk. Baina, hala ere, lan asko ematen zuten”. Jaiki eta gosalduta ondoren, animaliei jaten eman eta azpiak ateratzen zituzten. Esnea bildu behar bazen goizean esnea ere biltzen zuten. “Gero arratsaldean baratzen aritzen nintzen. Zerbait landatu behar bazen baratzen, landatu egiten nuen. Horretaz gain, belarra moztu ere egin behar izaten zen.





Orinocoko landare diaren irudi bat.

● **LAGUNTZA EGOKIA.** Nahiz eta azpeitiarrak laguntzailea galdu 1756ko otsailean, beste birekin jarraitu zuen agindutako landare azterketa egiten

tarrak ditugu gogoan, zaila edo ezinezkoa egiten baita haien abenturaren berri jakitea. Bakar batzuk bueltatuko ziren, dena ongi irten da, baina beste asko lurralde haietan geldituko ziren, noski noraezean, bururik altxa ezinda.... Hemen gaizki eta han okerrago.



Baserritarra belarra moztzen. / JUAN JOXE AGIRRE

“Asteburuan joaten naiz laguntzera, beti egoten baita zerbait egiteko baserrian”

**Juan Aramendi**



Gauean animaliei jatekoa eman... Egun osoan egoten zen zerbait egiteko”.

**ETXEKO PRODUKTUAK.** Baratza edukita, etxeke produktuez gozatzeko aukera izaten zuten. “Guk baserrian bertako jakiak jaten genituen. Baratzan denetik landatzen genuen: letxugak, porruak, tipulak, tomatea. Ahal zen guztia, eta horrela ez genuen dendara erostera joan beharrik izaten. Eta haragiarekin ere berdin; etxeke haragia jaten genuen”.

Baserriko bizitza gogorra dela garbi dago eta, agian, horregatik, gero eta jende gutxiagok aukeratzen du bizitzeko modu hori. “Egia da baserrian bizitzeak lana duela berekin. Baina, egia da baserri bateko bizi kalitatea ezin dela alderatu kaleko bizi kalitatearekin. Nik behintzat, askotan botatzen dut faltan baserriko bizitza”.

## abizena

### IPARRAGIRRE

● **Banaketa semantikoa.**

- Ipar-: iparralde.
- -Agirre: baso, soro.

● **Esanahia.** Iparraldera begira dagoen basoa, soroa.

● **Armarria.**

Urrezkoa, erdian banda bat, urezko eta zilarrezko uhinek. Ertzetan sinoplezko bi sahats, bakoitza alde banatan. Goiko sahatsari lotuta sablezko basurdea. Behekoan, beste basurdea, kate batekin zuhaitzari lotuta.



● **Abizenaren kokapena.**

- Oiartzun.
- Irura.
- Tolosa.
- Idiazabal.
- Azpeitia.
- Hondarribia.
- Beasain.

● **Abizenaren hedapena.**

- Azkoitia.
- Urnieta.
- Hernani.
- Berastegi.
- Idiazabal.
- Santiago.

'www.paisvasco.com/heraldica.' webgunetik hartua dago.

## komunikabidiek

‘DV’-k 56.000 IRAKURLE GUTXIAGO IAZ

Aipatzen zena egiaztatu da: *azpeitiarron egunkari zorionekoak* — *El Diario Vasco* — gero eta irakurle gutxiago dauzka. Izan ere, egunkariak iaz egunero batez beste izan zituzten irakurleen azterketa argitaratu da, eta DV-k 56.000 irakurle gutxiago ditu; %17,7 jaitsi da. *Deia* eta *Egunkaria* igo egin ziren.



argazkiye: Uztarria

# Behin horrelako prestutasuna izanda...

● **KORRIKA TXIKIA.** Txikienek hartzen dute parte. Lekukoa ikastetxez ikastetxe pasatuz herria zeharkatu zuen apirilaren 4an Korrika Txikiak. Igerilekuan hasi eta plazan bukatu zen. Gogo biziz aritu ziren lasterka gaztetxoak.

● **KORRIKA 13.** Apirilaren 6an heldu zen Korrika 13 Azpeitira. Zenbait azpeitiar Zestoan sartu ziren Korrikan, eta gehienak herriaren erdi-gunean bildu ziren bertara. Abiada bizia eraman zuen Korrikak herrian.



1



2



3





### 1. AZALPENAK.

Korrika Txikia apirilaren 4an izan zen Azpeitian. Ige-rileku aurretik atera zen. Korrika batzordeko bat lehen lekukoa eramango zuenari ibilbidearen inguruko azalpenak ematen.

### 2. HASIERA.

Korrika Txikiari hasiera emateko prestatzen.

### 3. PLAZARA.

Korrika Txikiko lekukoa plazara sartzen, atzetik herriko ikastetxeetako haurrak dituela.

### 4. KILOMETROAK.



Apirilaren 5ean, Korrika batzordeko kideak Azpeitiko ibilbideko kilometroak markatzen.

### 5. BEROTZEN.

Lasaon, bi azpeitiar Korrika 13ren zain. Bitartean, beroketa ariketak egiten.

### 6. ZAIN.

Lasaon hartu zuen Azpeitiak lekukoa. Herritarrak zain; minutu batzuk beranduago heldu zen Korrika.







**7. AZPEITIRA.**

Zestoatik Azpeitira bidean. Euskal Herrian Euskaraz-ekoak daramate lekukoa.

**8. ANTXIETAKOAK.**

Antxieta Antzerki Taldekoak lekukoarekin Eskuztan.

**9. AZPEITIAN.**

Korrika 13an jende andanak hartu zuen parte. Herriaren erdi-gunean bildu zen jende gehien.

**10. BADOA.**

Jende ilada luzea izan zen Korrika. Herria zuzenean pasatu eta Azkoitirako bi-dea hartu zuen.





# INTENTZIO ONEKO JENDEA...

**S**upermerkatu handi batean barrena nabil la-sai erosketak egiten. Herritik kanpo nago, hiri batean egun batzuk pasatzen. Ez daukat gogorik egunero dendara bueltaka ibiltzeko eta, beraz, etxera eramanaziko diet erosketa. Karrotxoa betetzen ari da poliki-poliki. Fruitu eta barazkien aldera hurbildu naiz. Patatak, kipulak... denetik pixka bat. Piper batzuk sartu ditut zorroan eta pisura gerturatu naiz ordaindu beharrekoa jakin eta zorrotxo-ari itsasteko. Hauetako pisu bat ez dabil eta bestearen bila abiatu naiz. Begiratu dut ez dabilen pisura eta nire moduko bat ikusi dut pisuari begira adia. Denbora darama han geldirik eta hurbildu eta zerbait esatekotan egon banaiz ere, moldatuko dela pentsatu dut, nire moduan, beste pisura joan da. Erosketak egiten ohitua dagoenaren itxura eman diot.

Piperrak karrora bota eta ea gizona moldatu den jakitearren, beste pisura begiratu dut. Han dago, pisuaren aurrean geldi. Bi pepinu dauzka zorrotxoaren barruan, pisuaren gainean bakarra. Hala da, bai. Batari eskuarekin heltzen dio, pisuaren gainean jarri gabe. Irribarrez nago ni, serio gizona. Ezin du nonbait pepinuen botoia bilatu eta asko tardatzen ari da, berak uste baino gehiago beharbada. Izan ere, bat-batean dendako langile bat hurbildu zaio eta berak nabaritu du nonbait gerturatzen ari zaiola. Poliki-poliki eskuarekin airean mantentzen duen pepinua pisuaren gainean jarri du, justu emakumea hurbildu zaion une berean. "Gizon, ez jarri eskua pisuaren gainean, behar duena baino gehiago pisatuz gero, gehiago ordaindu beharko duzu eta!".

Irribarretik algararako bidea egiten sentitu dut neure burua. Konbentzitua nengoen beste pepinua ere pisu gainean jarri behar zuela esango ziola eta hara non, gizonari, bere borondate onenarekin, lagundu nahiean, eskua pisu gainean ez jartzeko esaten ez dion ba!

Gizonak, buruarekin baietz egin dio, ez dela konurtatu esanez.

Saski gorrian sartu du pepinuen zorrotxoa eta erosketekin jarraitu du. Bi hartu eta bakarra ordaintzeko asmoa izango zuen eta azkenean, ibili-ibili eginda, biak ordaindu behar eta inozo baten moduan geratu behar gainera. "Gizajoa, ezin asmatuta dabil. Ikusi ere, ondo ez eta nahiko lan badauka". Tuntuna ni!

Irribarrez jarraitu dut erosketak egiten, gizonaren irudia burutik ezin kenduta. Ziria ederki sartuko zi-

## ANBIZIOA.

**Bi erbi hil  
nahi, batere  
gabe gelditu**

dan niri ere pepinu bakararekin tranpatan harrapatu izan ez banu.

Azken finean, pepinua ordaindu edo ez, ez dago alde handiegirik. Ez dakidana da, zenbat pepinu izango ote diren modu horretan etxera eraman dituenak. Bueno, pepinuak bezala, beste edozer.

Ez dut gizonaren jokabidea epaituko, bakoitzak daki zer eta zergatik egin egiten duena. Nik zer dakit ba dirurik ez duelako egin ote duen? Edo pepinu triste bat ordaintzea zilegi ez ote zaion iruditu? Pepinuak ez zaizkit batere gustatzen; beraz, niri ez galdetu.

Intentzio oneko jendez inguratuak bizi garela pentsatu izan dut beti eta halakoak ikusita ere, oraindik kostatu egiten zait alderantziz ere izan daitekeela pentsatzea. Lagun batek, behin adarra jotzeko asmoz, ilargiak eguzkiak baino gehiago beltzarazten duela esan eta sinetsi egin ez nion ba! Eguzkiari gutxi eta, beraz, ez zitzaidan bururatu ere egin ilargiari begira jartzetik Baina hala eta guztiz ere, nik sinetsi. Ai azkoitiarra izan banintz...

Ondo egin ote dio behintzak pepinuak gizon-txoari...





As.	At.	Az.	Os.	Os.	La.	Ig.
			1	2	3	4
5	6	7	8	9	10	11
12	13	14	15	16	17	18
19	20	21	22	23	24	25
26	27	28	29	30	31	

## MAIATZAK 7 (asteazkena)

### ● IKASTAROA.

Marrazketa eta pinturaren hastapenak ikastaroa. Zapo Txoko Gaztelekuak antolatuta. Irakaslea: Julian Ruiz. Ikastaroa: 28 euro edo 22 euro, gazte edota ikasle txartelarekin. 18:30etik 20:30etara. Zapo Txoko Gaztelekuan.

## MAIATZAK 8 (osteguna)

### ● IKASTAROA.

Terraza eta lorategietako diseinuaren hastapenak ikastaroa. Gazte Txoko Gaztelekuak antolatuta. Irakaslea, Iñaki Garmendia izango da. Ikastaroa: 45 euro edo 35 euro ikasle edo gazte txartelarekin. 18:30etik 20:30etara. Zapo Txokon eta kanpoan.

### ● BATZARRA.

Ikasberri Azpeitiko Ikastolaren ohiko batzar nagusia. Lehenengo deialdia, 20:30ean eta bigarren deialdia, 21:00etan. Ikasberri Ikastolako areto nagusian.

## MAIATZAK 9 (ostirala)

### ● MUSIKA.

Urrestillako Musika Altxorra diskoaren aurkezpena.

11:00etan. Urrestillan, Antxieta Elkartearen.

### ● IKASTAROA.

Sabel dantza ikastaroa. Irakaslea, Jaione Albeniz. 40 euro edo 30 euro, gazte edo ikasle txartelarekin. 18:30etik 20:00etara. Zapo Txoko gaztelekuan.

### ● ANTZERKI-POESIA.

II. Kulturaldia. Uztarría Kultur Koordinadorak antolatuta. *Letrak biluzten. Menu erotikoa* antzerki-poesia emanaldia, Azpeitiko eta kanpoko idazle gazteen eskutik. 22:00etan. Oñatz tabernan.

### ● ERREMONTEA.

Azpeitiko IV. Erremonte Txapelketa. Azpeitiko Udaleko Kirol Batzordeak antolatuta. Sarrera: bost euro. 22:30ean. Izarraitz pilotalekuan.

## MAIATZAK 10 (larunbata)

### ● ELKARTASUN EGUNA.

Elkartasun krosa, 11:00etan. Plazan izen-ematea eta irteera. Kroserako dortsalak Orkatz, Intz, Amaia, Oker, Zake-la (Azkoitian) eta Uztapide (Zestoan) tabernatan daude salgai. Ondoren, hamaiketakoa eta sari banaketa. Herri kirolak, bertsolariak eta trikitaliak 12:30ean, plazan. Herri bazkaria, 14:00etan, azoka plazan. Bazkarirako txartelak Orkatz, Bost, Zuhatz, Oker eta Amaia tabernatan egongo dira salgai. Zortzi eurotan ikasle eta langabetuentzat, eta hamar eurotan gainerako-

entzat. 15:30ean, gaztelu puzgarriak, aurpegi margoketa eta jolasak, Olazko Amaren plazan jarriko den gaztetxoaren gunean. 18:00etan, buruhandiak, Olazko Amaren plazan jarriko den gaztetxoaren gunean. 19:00etan, manifestazio isila. 23:00etan, kontzertua, plazan: herriko musika taldeak eta Reincidentes musika taldea.

### ● LURRINEZKO TRENA.

Lurrinezko trenean Lasara. 12:30ean eta 18:00etan. Burnibidearen Euskal Museoa.

### ● ASTEBURU MUSIKALAK.

Donato Goienetxe *A ritmo de tambores* musika ekitaldia. 19:00etan. Udaletxeko arkupean.

## MAIATZAK 11 (igandea)

### ● HERRI URRATS.

Herri Urratserako autobusa antolatu du Ikasberri Azpeitiko Ikastolak. Izen-ematea: 943 15 12 46 telefonoan.

### ● LURRINEZKO TRENA.

Lurrinezko trenaren ibilaldia Lasara. 12:30ean irteera. Burnibidearen Euskal Museotik.

### ● ASTEBURU MUSIKALAK.

Itsasi Musika Taldearen kontzertua. 12:30ean. Udaletxeko arkupean.

## MAIATZAK 16 (ostirala)

### ● ARGAZKILARITZA.

XXIV. Kutxa Juan Antxieta Argazki Lehiaketako argazkien

erakusketako azken eguna izango da. Erakusketaren ordutegia, astegunetan, 18:00etatik 20:00etara da. Antxieta Etxean.

### ● ERREMONTEA.

Azpeitiko IV. Erremonte Txapelketa bi partida. Azpeitiko Udaleko Kirol Batzordeak antolatuta. Sarrera: bost euro. 22:30ean. Izarraitz pilotalekuan.

## MAIATZAK 17 (larunbata)

### ● ARETO FUTBOLA.

Lehen Maila: Jostaldi Kirolak-Cash Converters. 16:30ean. Kiroldegian.

### ● FUTBOLA.

Hirugarren Maila: Lagun Onak-Alaves C. 17:00etan. Garmendipen.

## MAIATZAK 18 (igandea)

### ● MENDIA.

Txalintxora mendi irteera. Lagun Onak Mendi Bazkunak antolatuta. Irteera 09:00etan. Plazan.

### ● MUSEOEN EGUNA.

Museoen nazioarteko eguna ospatuko da Burnibidearen Euskal Museoa egun osoz.

### ● ASTEBURU MUSIKALAK.

Joxe Mari Altuna zenari omenaldia. Udal Musika Banda eta Izarraitz Txistulari Taldea eta Zumaiako parrokiako San Pedro Abesbatzarekin. 10:00etan, goiz eresia. 10:45ean, korporazioa parrokiara. 11:00etan meza nagua.

Lore Sortak  
Koroiak  
Lore Apaingarriak

Etxeetarako  
Zerbitzua Dugu

Tel.: 943 81 51 87  
Laiola-Bide, 25 - AZPEITIA




ostadar optika  
OPTOKIAK - OPTOMETRISTAK

Jose de Artetxe, 17  
Tel. 943-810664  
AZPEITIA

Ibai Ondo, 28  
Tel. 943-850445  
AZKOITIA



AZKOITIA

ERLOJU  
KONPONKETAK

Arana, 5  
AZPEITIA Tel.: 943 81 47 12



Euskal Herria, 34  
20730 AZPEITIA  
Tel.: 943 15 16 40

Larrialdiak:  
943 15 16 40

Ekain  
ALBAITARI KLINIKA



CAJA LABORAL  
EUSKADIKO KUTXA



domusja





sia. Eta 13:00etan, Izarraitz Txistulari Taldea eta Azpeitiko Udal Bandaren kontzertua izango da, Udaletxeko arku-petan.

### MAIATZAK 21 (asteazkena)

#### ● EUSKARA.

Asisko Urmenetaren hitzaldia: *Hizkera ez formal*. Baite Euskara Elkarateak antolatuta. 20:00etan, Aitonenan.

### MAIATZAK 23 (ostirala)

#### ● PINTURA.

Diart Estudioko ikasleen lan-eren erakusketa. Ekainaren 13a arte irekita izango da. Astegunetan 18:00etatik 20:00-etarako ordutegian. Antxieta Etxean.

#### ● ERREMONTA.

Azpeitiko IV. Erremonte Txapelketa. Azpeitiko Udaleko Kirol Batzordeak antolatuta. Sarrera: bost euro. 22:30ean. Izarraitz pilotalekuan.

### MAIATZAK 25 (igandea)

#### ● MENDIA.

Xoxoteko eguna. Lagun Onak M.B.k antolatuta. Irteera 09:00etan. Plazan.

#### ● USO TIROA.

Uso tiroa, Sanjuandegiko Udaberriko jaien barruan. Sanjuandegiko Jai Batzordeak antolatuta. 10:00etan. Lapatxen.

#### ● LURRINEZKO TRENA.

Lurrinezko trenaren ibilaldia

Lasaora. 12:30ean irteera. Burnibidearen Euskal Museotik.

### MAIATZAK 26 (astelehena)

#### ● SANJUANDEGIKO JAIK.

*Pakita la del barrio* ikuskizuna. Sanjuandegiko Udaberri jaien barruan. Sanjuandegiko Jai Batzordeak antolatuta. 22:00etan. Izaro tabernan.

### MAIATZAK 27 (asteartea)

#### ● SANJUANDEGIKO JAIK.

Txiste kontalaria. Sanjuandegiko Udaberri jaien barruan. Sanjuandegiko Jai Batzordeak antolatuta. 22:00etan. Diego tabernan.

### MAIATZAK 28 (asteazkena)

#### ● ODOL EMATEA.

Hileroko odol-emate eguna. Gipuzkoako Odol Emaileen Elkarateak deituta. 18:30etik 21:00etara. Anbulategian.

#### ● SANJUANDEGIKO JAIK.

Peru, musika eta imitazioak. Sanjuandegiko Udaberri jaien barruan. Sanjuandegiko Jai Batzordeak antolatuta. 22:00etan. Erreka tabernan.

### MAIATZAK 29 (osteguna)

#### ● SANJUANDEGIKO JAIK.

Mus Txapelketa. Sanjuandegiko Udaberri jaien barruan. Sanjuandegiko Jai Batzordeak antolatuta. 21:00etan. Ongi Etorri tabernan.

### MAIATZAK 30 (ostirala)

#### ● ELKARRATERATZEA.

*Euskal Presoak Euskal Herri* ra lemapean maindire ilada. Azpeitiko Senideak deituta. 19:00etan. Bariantean.

#### ● SANJUANDEGIKO JAIK.

Txupinazoa Sanjuandegiko Udaberri jaiari hasiera emenez. Sanjuandegiko Jai Batzordeak antolatuta. 20:00etan. Ondoren, buruhandi eta erraldoiak ibiliko dira auzoan zehar. 23:00etan, aretoko dantzen erakustaldia, Jose Antonio Agirre plazan. 00:30ean, Rafa, *Euskadi tropikala* ikuskizuna, Jose Antonio Agirre plazan.

#### ● ERREMONTA.

Azpeitiko IV. Erremonte Txapelketa. Azpeitiko Udaleko Kirol Batzordeak antolatuta. Sarrera: bost euro. 22:30ean. Izarraitz pilotalekuan.

### MAIATZAK 31 (larunbata)

#### ● SANJUANDEGIKO JAIK.

Udaberri jaiak. Sanjuandegiko Jai Batzordeak antolatuta. 11:00etan, buruhandiak eta erraldoiak. 12:00etatik 14:00-etara eta 15:00etatik 20:00-etara umeentzat jolasak eta puzgarriak. 12:30ean, poteoa trikitilariekin. 14:30ean, auzotarren bazkaria. 16:30ean, kale animazioa eta antzerkia Kar Kar taldearekin. 18:00etan, Los Incansables txaranga. 23:00etan, Golden Apple Quartet. 00:30ean Draq Que-

en Clown Show kale antzerkia. Goizalderarte txaranga.

#### ● ASTEBURU MUSIKALAK.

Udal Musika Banda Gaztearen kontzertua. 19:30ean. Udaletxeko arku-petan.

### EKAINAK 1 (igandea)

#### ● SANJUANDEGIKO JAIK.

Sanjuandegiko Udaberri jaiak. Sanjuandegiko Jai Batzordeak antolatuta. 06:00etan, txokolatada. 07:00etan, zezena. 09:00etan, salda eta pintxoak. 11:30ean buruhandiak eta jubilatuentzat hamai-ketakoa. 11:30ean, Udal Musika Bandaren kontzertua, Jose Antonio Agirre plazan. 12:00etan, dantzari txikien emanaldia. 13:30ean, Eltziegoko gaiteroak. 15:00etan, umeentzako poniak. 17:00etan, herri kirolak Agirre plazan. 20:00etan Lañu. 22:30ean, suzko zezena.

#### ● MENDIA.

Pagoetara goiz ibilaldia. Lagun Onak Mendi Bazkunak antolatuta. Autobusa 08:00etan aterako da, plazatik.

#### ● LURRINEZKO TRENA.

Lurrinezko trenaren ibilaldia Lasaora. 12:30ean. Burnibidearen Euskal Museotik.

Zeuon ekitaldiak-eta Uztarriara helarazteko aukerak:

- Julian Elorza Hiribidea 4, 2.a ezkerra (Azpeitia)
- 943 - 15 03 58 telefonoa / faxa
- uztarria@topagunea.com

Amenabar  
D E N D A

gortinak, ohazalak,  
edreoi nordikoak ...

Eliz-kale. 32-behea - Telf/Fax: 943 15 06 97



Otamendi  
Potxi Denda

Goiko - Kale, 4 - Tfnoa. 81 13 49

TABERNA



Telfnoa.: 943 151086

Enparantza Nagusia



PILDAIN  
inmobiliaria

Elizkale, 22 • Tf. 943-812167 • pildain@jet.es



kutxa

gizarte ekintza

Biele





NEREA ARANBURU

## “Modelo aritzie zaletasun bat den neretzako”

**S**aioa Etxaniz 17 urteko neska azpeitiarra da. Iraurgin ari da ikasten bigarren batxilergue. Azpeitiko Alde Zaharreko dendaiyek apirilien 26eko desfileen parte hartzeko, modeluen *kasting* bat antolatu zeben aurretik. Saioa Etxaniz izan zan aurkeztu zan hoiyetako bat. Ez da lehen aldiye holako *kasting* batera aurkeztu dana.

### ● Nolatan aurkeztu haiz *kasting*-era?

Alde Zaharreko dendaiyek apirilien urterot antolatzen deben desfileen parte hartzeko *kasting* bat antolatu zebela eta, hotsegin egin zinabeanan desfilatu nahi al nuen jakiteko. Ez den aurreneko aldiye; gustuko dizkinet holako gauzek.

### ● *Kasting* askotara joan al haiz?

Danera, hiruta jun naun. Lehenengo aldiz aurkeztu nintzenien, 11 urte izengo nizkinenan.

### ● Nola hasi hintzenan mundu hontan?

Txikitetik beti izen naun *presumidie*. Behin, orain dala urte batzuk, Azpeitiyen bertan *kasting* moduko bat antolatu zinebenan. Lagun kuadrila bat jun gintunan. Gustatu egin zitenan saltsa hure. Esan beher dinet oso ondo pasatu genula.

### ● Eta gustatu eta berriz ere aurkeztu egin hintzenan beste batera.

Orain dala bi urte izen hunan. Amarekin erosketak egitera jun gintunan eta den-

da kanpuen *kasting* deialdireko kartel bat zagonan; Eibarrerako hunan, gainera. Desfile bat egin beher zebela eta jendie beher zinebenan. Asteburu hure libre naukenan eta aurkeztu egin nitxinenan. *Kasting*-ien bertan esan zinebenan aukeratute izen nintzela. Fenomeno pasatu ninenan, erropak probatzen denda batetik bestera eta jende berriye ezagutzen.

### ● Zer egiten da *kasting* batien?

Bakoitze desberdine den. Azkenengo hontan, orri bat bete beher izan ginenan, bakoitzen datuekin, eta gero neurriyek eskatu zizkigutenan; alturie, praktan neurriye, hankakue... Gero aurretik esperientziarik ba al genuen ere galdetu zigutenan. Ondoren, barrure sartu banaka, eta buelta batzuk eman gizkinenam, ikusteko nola desfilatzen genuen.

### ● Benetan gustukue al den mundu hori?

Zaletasun bat den. Orain arte ondo pasatu dinet, baino ez dinet behin ere

planteatu seriyo hartzie. Aldizkari eta karteletan zeoze antolatzen dela ikusten badet, aurkeztu egiten naun.

### ● Etorkizunerako lanbidie?

Ez. Zaletasun bezela gustora segituko dinet desfilatzen, baino ez dinet nere lanbide bezela ikusten.


“Lagun kuadrila bat joan gintunan lehen *kasting*-era eta gustatu egin zitenan. Ondo pasatu ginenan”

“Zaletasun bezela gustora segituko dinet, baino ez dinet nere lanbide bezela ikusten mundu hau”

Nerea Aranburu

**TXIKITEKO AMETSA.** “Txiki-txikitetik beti oso *presumidie* izen naun eta asko gustatzen zitenan modelue eta kantantie izetie; hayek imitatzen ibiltzen nitunan askotan ebien”





Euskaldunagoa?  
Oso zaila dago.

Independenteagoa?  
Ez da erraza.

Pluralagoa?  
Zein bezain plurala?


Hobea?  
Hoberena zen.

**baina  
hobetuko  
dugu  
zure laguntzarekin**

**berria berri**

Akzioei buruzko informazioa:  
[www.ektsa.net](http://www.ektsa.net)  
Tf: 635 733 385 · 635 733 386





Santi Lazkano Kirolak

udaberria - udara

Jose Artetxe, 1

Tel/Fax: 943 81 16 50

# Sare@informatika

Telekomunikazio Zerbitzuak & Informatika



Eskaintzen ditugun zerbitzuak eta produktuak

## Ordenagailuen eta portatilen salmenta



Markako PC-ak

Gure markako PC-ak

Portatilak

## Informatika zerbitzu teknikoa



Zerbitzu Tekniko azkarro

Mantenu Kontratuak

## Periferikoen salmenta eta konponketak



Multifuntzioak

Formatu handiko inprimagailuak

Laserrak

## Sare informatikoen instalazio eta kudeaketa



Sareen diseinua eta muntaia

Sareen mantenua

Serbitzariak

## Kontabilitate kudeatze programen ezartzea



Kudeaketa programak

Kontabilitate

Nominak

## WEB orrien diseinua eta mantenua



2002 Corporative

2001 Tienda

2001 Escaparte

## Erregistratzaile, balantza eta TPVen salmenta



## Informatika aholkularitza



# Enpresetarako Telefoniak zerbitzu guztial



Azpeitia  
Pablo VI 19 behea  
943 157 321

Azkoitia  
Julio Urkixo 10 behea  
Telf: 943 85 36 60

Zarautz  
Kale Nagusia 1 E  
Telf: 9431333

Banatzaile Ofiziala  
**Euskaltel**